

500 pezeta.
20 libera

hik hasi udako topaketak

2001eko uztaila

2001eko UDA



DONOSTIA

Unibertsitate Campusa

Uztailak 3, 4 eta 5

20 ikastaro goizez eta saio libreak arratsaldez

60

euskal
heziketarako
aldizkaria

Zart

01.951.1003

aurki bidea

4 Sarrera

5 Kohlberg

11 Web orria lantzen

13 Aldizkari elektronikoaren prestaketa

15 Klik

17 Ipuin multimedialak sortzen. "Fabula proiektua"

19 Musika Hezkuntza Berezian

21 Plis-plast(h)ik(h)asi... Plastika, hizkuntza eta dramatizazioa uztartuz

23 Munduko dantzak

25 Eutonia

27 Heziketa fisikoko irakasleen txokoa

31 Praktika psikomotrizaren adinkako analisia

35 Euskaraz aritzeko kantak eta jolasak

37 Hizkuntza idatzia eta ikasleen aniztasuna

47 Literatura eta haurren mundua

51 Literatur txokoa: Lizardi, Mirande eta Sarrionandia

55 Idazkera "txarra"? Ez, eskerrik asko

57 Niri ez zait matematika gustatzen

59 Heriotza heziketan. Egungo tabua?

63 Eskolak bakarrik ezin... Familiak bakarrik ezin...

65 Nahigabe psikikoa bideratzeko interbentzio goiztiarra

70 Arratsaldeetako saioak



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION



Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskararen Normalkuntzako
Zuzendaritza Nagusia



Donostiako
Udala

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.14.08
Fax: 943/ 37.21.54. Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 **Koordinatzailea:** Joxe Mari Auzmendi **Erredakzio burua:** Airhoa Azpiroz **Erredakzio batzordea:** Itziar Barriola, Mikel Estorba, Arantxa Gobilu, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. **Aholkulariak:** Imanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Begoa Bilbao, Mariam Bilbao, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goni, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Aneia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaola eta Pruden Sudupe. **Diseinua:** TRAMGrafik maketazio, **aurreinpresioa:** Gaizka Ibeas. **Inprimategia:** ANTZA S.A.L. **Azaleko irudia:** hik hasi Udako Topaketak
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2001/VI/25. Kopurua: 5.000 ale
hik hasiko artikuluez edonon eta edonoz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

Sanr era

hik hasik antolatutako II. Udako Topaketa Pedagogiko hauek ilusioz eta gogoz antolatzen hasi ginen. Iazkoa erronka gisa hartu genuen, gure aldizkariaren 50. zenbakiaren kaleratzea aitzakiatzat harturik. Apustu hark erantzun ezin hobeza izan zuen, eta aurten ere topaketak antolatzera animatu gintuen.

Lehenengo aldiak izaten duen berritasun eta primiziarik gabe, aurtengo ikastaroek iaz adinako erantzunik izango ote zuten zen gure kezka. Aitzitik, matrikulatu kopurua ikusirik, iazkoa errepikatuzera goazela esan daiteke. 600 pertsona inguru matrikulatu dira 20 ikastarotan, eta hizlari eta antolatzailen artean 700 lagun inguru bilduko gara uztailearen 3, 4 eta 5ean Donostian.

Erantzun honek argi uzten du euskal irakaskuntzan gabil-tzanok prestakuntza gosea daukagula. Eguneroko lana hobetzeko aukera emango diguten ikastaroak nahi ditugu, gure beharretara egokitutako ikastaroak. Hori jakinik, **hik hasiren** erronka dauden gabezia, hutsune eta kezkei erantzuna emateko aukera eskaintzea da, bai ikastaroen eta saioen bidez, eta baita elkarrekin egoteko topagunea sortuz.

Horrela, aurten 20 ikastaro izango dira, horietako bitan taldea bikoiztu delarik eskaerari erantzun ahal izateko. Hainbat gai eta arlo ukitzen dituzten ikastaroak dira, zehatzak eta praktikoak. Teoria arloa jorratzen da batzuetan, infomatika eta teknologia berriak beste batzuetan, gaurkotasuna eta kezka sortzen duten gaiaren ingurukoak dira beste zenbait, eta espresioarekin eta komunikazioarekin zerikusia duten ikastaro arinak beste zenbait. “Etorkinak eta kulturantzatasunaren trataera hezkuntzan” ikastaroa bertan behera gelditu da erantzun eskasa jaso duelako. Guk ilusio handia geneukan gaurkotasuna duen eta kezka sortzen duen gai hau lantzeko. Gero eta etorkin gehiago dago gure artean eta eskolan eman behar zaien trataera eta heziketa euskal ikus-

pegitik aztertu nahi genuen. Bruselan gai hau jorratzen ari diren pertsonak etortzekoak ziren. Baina, esan bezala, ikastaroa aurrera ateratzeko adinako erantzunik ez zuen jaso.

Goizeko lanari arratsaldeko saioek emango diote segida, modu lasaiagoan, baina gogoa duenari ikasteko eta esperientziak elkartrukatzeko aukera emanez.

Urte osoko lanaren emaitza ikustera goaz. Hilabeteetan jorratutako soroan uzta jasotzeko unea iritsi da. Jende askok lagundu digu soro horretan lurra prestatzen, hazia ereiten edota ureztatzen. Lerro haueetatik laguntza guztia eskertu nahi dugu, eta bereziki Gipuzkoako Foru Aldundiarena eta EHUko Pedagogia Fakultateko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailarena. Lehenengoarekin, iaz bezala, topaketen aurreko hasiera ekitaldia antolatzen jardun dugu. Gipuzkoako Foru Aldundia gazteen hizkera informala erabilera bultzatzeko egiten ari den lana, ikastetxetako ahaleginarekin lotu nahi izan dugu, eta aurkezpenean Joxerra Garziak eskainiko duen hitzaldia izango da horretarako bide emango duena. Pedagogia Fakultateko aipatu sailaren aldetik, ostera, ikastaroetarako lekua aurkitzeko eta egokitzeko garaian jaso dugun jarrera, laguntza eta prestutasuna ere benetan esker-tzen ditugu.

Eta orain, uzta jasotzeko garaia iritsi denean, argi utzi nahi dugu ez dugula guretzako nahi uzta hori, denon artean banatze-ko baizik. Ikastaroetan parte hartzen duzuen guztion artean eta interesa agertzen duen edonoren artean banatu nahi dugu. Atera bekio bakoitzak ahal duen etekinik handiena, bai berarentzat eta baita, oro har, euskal hezkuntzarentzat ere. Horrela, gero eta soro handiagoa, oparagoa eta aberatsagoa izango dugu. Ahalegin horretan jardun du **hik hasik** orain arte eta hemendik aurrera ere hala jarraituko du.

Kohlberg

Koordinatzailea: Lontxo Oihartzabal

Lekua: **Pedagogia Fakultatean, 2.2 gelan**

Uztailak 3	Uztailak 4	Uztailak 5
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia</p> <p>9:30 Balio moralak: balioetan hezteko orientabideak? - Balioen artean bereizten. Moral-tasunaren eta etikaren artean bereizten. - Hezkuntza morala. Oinarrizko ereduak: ikuspegi "erromantikoa", ikuspegi "teknologikoa" edo "balioen transmisioarena" eta ikuspegi "progresiboa". * Fausti Azazeta Zubiaurre. EHUko irakaslea.</p> <p>ATSEDENALDIA</p> <p>- PIAGETengantik KOHLBERGenganaino. - Psikologia genetikoa garapen moralaren kasuan. Zertan gainditzen du Kohlbergekin Piaget? * Conchi Medrano. EHUko irakaslea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 Garapen moralaren mailak eta aldiak: hezkuntzaren inplikazioak. - Garapen moralaren hiru mailak eta sei aldiak. Benetako dilemak eta dilema hipotetikoak eredutzat hartuz aldien ebaluazioa erraztuko du. * Conchi Medrano.</p> <p>ATSEDENALDIA</p> <p>- Berdinen arteko eztabaidak eta gatazka garapenaren eragile gisa. * Conchi Medrano.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 Kohlbergen proposamen psikopedagogikoaren deskribapena: just community. * Lontxo Oihartzabal. EHUko irakaslea.</p> <p>ATSEDENALDIA</p> <p>- Kohlbergen proposamen psikopedagogikoaren aplikapen praktikoaren hainbat eredu. - Garapen morala neurtzeko tresna bat. * Oskar Viguera (Lasarte-Oriako PAT) eta Gema del Rio (Donostiako IBT)</p> <p>- La Salle ikastetxeetako esperientzia.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Balio moralak: balioetan hezteko orientabideak?



Balioetan heztea, horra hor irakasleoi plazaratzen zaigun erronka zoragarria, zaila, aldi berean. Hezkuntzaren eguneroko egoeretan galdere asko sortzen zaizkigu, balioen heziketarekin zerikusia dutenak. Nola muga daitezke, zehaztasunez, balioen hezkuntzaren eginkizunak eta helburuak? Balioetan hezteari amildegien aurrean aurkitzen da: balioen erlatibotasunaren amildegia ("balio guztiak balio berdina dute") eta doktrinamenduaren amildegia.

Zer egin? Hezitzaileok ezkutuko balioak txertatzen dizkiegu ikasleei. Hezitzaileen jardura guztien atzean ezkutuko curriculum bat dago.

Zer jarrera hartzen dugu prozesu horren aurrean? Zer gertatzen da belaunaldien arteko balio ikusmoldeen desberdintasunekin? Ez al dugu entzuten zaharragoak gazteagoak baino "moralagoak" direla?

Oraintxe aipatu berri dugu "magikoa" bilakatzen ari zaigun kontzeptua, **moral** alegia. Azken bolada honetan maiz hitz egiten da moralitasunaz jendaurrean; badi-rudi nolabaiteko "moda" bihurtu den gaia dela. Zalantzarik gabe, "moda" horren azpian dagoen zergatik bultzatzaileak izaera sozio-kulturala dauka, sortzen ari zaizkigun arazo sozio-kultural berrietan konkreta daitekeena: sinesmenen aniztasuna, bioetika problemak, herri zapalduen burujabetzarako borrokak, eutanasia, kutsaduraren aurkako borroka, Europa Batua eta lana eta abar. Zalantzarik gabe,



Fausti AZAZETA
EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea

gertaera horiek guztiak balioak islatzen dituzte: politikoak, zientifikoak, sozialak, ekonomikoak. Baina badirudi, horien artean ordena edo orientabidea jartzearen, balio moralen beharra aldarrikatzen ari garela. Bai, arazo sozio-kultural horiek moralak berreskuratzea eragin dute, eta noski, horrelakoa gertatzen denean, eza-guerazko diziplinen zeregina berreskuratze hori lantzea da.

Auzi horretan aritzeko garaian filoso-fiak hartu izan du ardura nagusia. Hezkuntza moralaren programek hipotesi filosofiko jakin batzuk dituzte hondarrean. Filosofoak izan behar ote dugu, hortaz, hezkuntza moralean jarduteko? Gainera, filosofia moralaz zerbait dakienak filosofoen artean ere desadostasun nabarmenak daudela badaki. Zeini jarraitu behar zaio? Utilitaristei, moralitasuna ekintzen emaitza positiboekin lotzen dutelako (guztiz zilegi ez diren bitartekoen erabilpena ere onartuz, helburuetarako baliagarria izaneko)? Ala sozialistei, zeinentzat Ongiaki eta Gaizkiak izaera kontraesankorra duten

(klasista, sexista, belaunaldikoa eta abar) eta, beraz, beti egongo diren, gutxienez, bi moral mota?

Baina, filosofia ez da moralaz kezkatzen den giza jakinduria bakarra. Badaude besteak, psikologia, esate baterako. Psikologiaren esparruan, 60ko hamarkadan, Piageten lanak berreskuratzen dira. Piageten teoria egiaztatze asmoz, zenbait egilek egin zituzten ikerketak nagusitzen hasi ziren, eta erreferentzia puntu bilakatu ziren hortik aurrera. Beraz, moralitasunari buruzko gaurko azterlan psikologikoak paradigma kognitibo-ebolutiboari egokitzten zaizkio neurri handi batean. Eta paradigma horren barnean aitzindari dugun egilea Estatu Batuetako psikologo eta filosofo zen Lawrence Kohlberg dugu (1927-1987).

Kohlbergen hezkuntza moralaren muina zein den galderari honelaxe erantzuten zaio gehienetan: dilema-etzabaida. Erantzun hori laburregia eta okerrekoa da. Teoriaren muina *Just Community*ren ideia da: hezkuntza morala ekintza eta erabaki moralen bidez gauzatzen da; demokrazia demokraziaren praxiaren bitartez ikasten da. *Just Community*, hots, "komunitate zuzena" motako eskoletan **justizia** printzipio gidari bilakatzen da, elkarrekiko bizitzaren giro moralaren bitartez.

Topaketa hauetan Kohlbergen ekarriak azaltzen saiatuko gara, aldeztu aurretik jakinda ez dela dagoen hezkuntza morale-rako bide bakarra, baina badela laguntza eskaintzen duen bide bat.

Piagetengandik Kohlbergenganaino

Kohlbergen ekarpena ezagutu-tzeko asmoz, bi hitzaldi eskainiko ditut. Lehenengoan Piagetengandik Kohlbergengaino izeneko izango da. Psikologia genetiko izango dugu aztergai garapen moralaren kasuan eta zergatik gauditzen duen Kohlbergek Piaget. Bigarren eguneko jardunaren izenburua Garapen moralaren mailak eta aldizak: hezkuntzaren inplikazioak izango da.



Conchi MEDRANO
EHUko Pedagogia Fakultateko irakaslea

Hitzaldia Kohlbergen teoriari buruzkoa izango da. Autore hau garapen moralaren azalpenean ikuspegi kognitibobolutiboaren ordezkari onenetakoa da. Epistemologia genetikoaren markoan autore honek garapen moralaren teoria egin du dilema moralak erabiliz bai subjektuaren ebaluazioa egiteko bere arrazoiaketa moralaren mailaren arabera, eta bai arrazoiaketa maila altuagoak bultzatzeko eztabaida eta gatazken bitartez. Hau da, bere ereduak hezkuntzako profesionaloi gure ikasleen arrazoiaketa moralaren ebaluazioa errazteko balioko digu, eta gelan esku-hartzeko estrategia bezala ere bai.

Garapen moralaren hiru maila handi sailkatzen ditu eta horiek sei fasetan bereizten ditu.

Maila aurrekonbentzionalak 1. fasea (moraltasun heteronomoa) eta 2. fasea (harremanen moraltasuna) biltzen ditu. Maila honetan arau sozialen ulermenik ere ez dago, subjektuarengandik kanpo daudela ulertzen baita.

Maila konbentzionalak 3. fasea (pertsonek arteko araudiaren moraltasu-

na) eta 4. fasea (gizarte sistemaren moralitasuna) biltzen ditu. Pertsonek eta taldeen leialtasuna baloratzen dituen perspektiba soziala du maila honek. Ongia adostasunarekin eta besteek guregandik espero dituzten espektatibak betetzearekin definitzen da.

Maila postkonbentzionalak 5. fasea (giza eskubideen moralitasuna) eta 6. fasea biltzen ditu. Maila honetan subjektua bere taldetik harantzago doa eta bere printzipioak eraikitzen ditu arau sozialen gainetik. Oinarrizko eskubide

Autore hau garapen moralaren azalpenean ikuspegi kognitibobolutiboaren ordezkari onenetakoa da

unibertsalen arabera eta taldearen legeak edo arauak gizakien eskubideen aurka doazenean gizarteak eta indibiduoak mantendu behar dituzten balioen arabera definitzen da ongia.

Garapen moralerako estrategia bat bezala dilema arteko eztabaida bultzatzen du egileak. Dilemek beti bi balioen arteko gatazka aurkezten dute, eta hipotetikoak edo errealak izan daitezke.

Dilema hipotetikoak arazo deskontestualizatuak planteatzen dituzte, non beti interesen gatazka bat agertzen den. Kohlbergek bederatzik dilemekin lan egin zuen eta zuzenketa eskuliburu bat egin zuen. Horrek subjektuak arrazoiaketa moralaren fase batean kokatzea ahalbidetzen digu.

Bien bitartean, **dilema errealak** ikasleek beraiek egituratzen dituztenak dira, eta beraientzat oso esanguratsuak diren bi balioen arteko gatazka adierazi ohi dute. Dilema horiek zeharka eta hainbat diziplinetan ere planteatu daitezke. Edo besterik gabe, heziketa moralera erretsebatutako eta irakasleek aurretik zehaztutako espazio bereziak erabil daitezke.

Kohlbergen teoriarekin ohitzeko modu bat dilema ebaluatzen saiatzea da. Hori dela-eta, aurkezpenean gure testuingurutik hartutako dilema errealak landuko dira, arrazoiaketa moralaren maila bat ezartzen ahaleginduz. Hezkuntza instituzioetan ezartzeko eztabaida moralaren ereduaren pauso nagusienak ere aztertuko dira. Bukatzeko, teoria honen kritika eta muga garrantzitsuenak aztertuko dira, bai teorikoak eta bai ezarpen praktikoan agertzen direnak.



Kohlbergen proposamen psikopedagogikoaren deskribapena: *just community*

Pertsonak ezagutza etiko-moralaren eremuan egiten duen garapena aztertu zuen lehenik Kohlbergek, eta garapen horretako urrats nagusiak deskribatu ondoren, ikasle garapeneko zein mailatan aurkitzen den jakin ahal izateko eskuliburu bat ere moldatu eta argitaratu zuen.

Kezka batek astintzen zuen, ordea, autorearen barrena: etikoki arrazoitzeko gaitasuna nahikoa garaturik izanik ere, garatutako arrazoibideen aurka jokatu ohi duela askotan gizakiak, eta hori izan zen bere ikerketetako ondorioetako bat. Nondik sortzen ote da pentsaeraren eta jardunaren arteko etendura eta kontraesan hori? Arrazoi-keta morala ez ezik, pertsonaren izaera emozionala ere konprometitua dago jarrera ea jokabide etikoetan; horren ondorioz, hezkuntzak izakiaren bi alderdi horiek batera landu beharko lituzkeela zioen Kohlbergek, aipatutako eten hori gaindituko bada.

Zentzu horretan, eskolak berak *komunitate zuzen* (just community) moduan jardun beharko luke, ikasleen arrazoiketa eta konpromiso praktikoa



Lontxo OIHARTZABAL
EHUko Pedagogia Fakultateko irakaslea

aldi berean lantzen joan ahal izateko, zioen gure autoreak. Izan ere, konpromisoak -egoera gatazkatsuetan erantzukizunez jokatzeko, alegia- inplikaturiko egoeraren azterketa arrazionala eta ondoriozko erabaki erreala eskatzen baititu, biak batera. Bestela esanda, jarrera eta jokabide etikoaren xede nagusi den erantzukizunez hartutako konpromiso egoera erreal gatazkatsuetan partaide eraginkor izanaz bakarrik irits daiteke gizakia.

Eskolako bizitzan egoera gatazkatsugarri sortu ohi da egunerokotasunaren gurgpilean: arau berdinak modu ezberdinean interpretatu eta bizi dituzte

ikasleek, irakasleek eta gurasoek, baita ikasle batzuk eta beste batzuk; ikasle-en jarrerak eta jokabideak oso era ezberdinean epaitu eta bizi dituzte ikasleek, irakasleek eta gurasoek, eta bar. Egunerokotasunak bere dituen gatazka horiez nola baliatu ikasleen (baina baita irakasleen eta gurasoen) juzgu eta jarrera moralaren garapen bultzatzeko? Horretarako hezkuntza proposamen praktikoa bat da *eskola-komunitate zuzenaren* egitasmoa.

Egitasmo honen ezaugarri nagusiak aztertzea da hitzaldi honen helburua nagusia:

a) zein eratako partaidetza eremuak sor daitezke eta sortu beharko lirateke ikasleentzako eskolako egunerokotasunean?

b) zein eratako jarrera eta eginkizun ditu irakasleak eskola egoera gatazkatsuetan?

c) zer egin dezakete gurasoek beren seme-alaben garapen etiko-morala eskolarekin batera bultzatzeko?

Antzeko gaiak jorratuko dira teoretiko, eta gero guztien artean eztabaibatuko.

Garapen moralaa neurtzeko tresna bat

Ian honen helburua ez da Kohlbergen maila moralen ezaugarriak eta definizioa ematea. Baina, garrantzitsua iruditzen zitzaigun galdera bati erantzuna ematen saiatzea: *ba al dago ikasleen (personen) garapen moralaa neurtzerik?*

Guretzat galdera horrek zerikusi handia du beste batzuekin: *garapen moralaa eskolan bultzatu daiteke, ala berez, naturalki, gertatzen den prozesua da? Ikasleen garapen moralaren maila kontuan hartu behar al du eskolak bere ekintzetan? Garapen moralari dagokionez, ba al dago alderik adin bereko ikasleen artean? Eta eskolen artean?...*

Garbi geratzen da galdera horiek guztiek garapen moralaren neurketa posible izatea eskatzen dutela. Baina puntu hori ez dago zeharo garbi. Bilatzen hasi ginenean ez genuen garapen moralaa neurtzen zuen frogaririk aurkitu. Garapen moralaa neurtzeko saiakera nagusienetariko eta ezagunenetariko bat DIT izenekoa da. Rest-ek diseinatu zuen, eta asko zabaldu da hainbat herrialdetan zehar. Estatu mailan ere itzulpena eta balioztatpena eginak zeuzkan. Froga horrek gure emaitzak beste batzuekin erkatzeko aukera ematen zigun. Baina, gure kezka nagusia zera zen: frogaririk garapen moralaa neurtzeko baliagarria zen ala ez egiaztatzea.

Gure lehenengo lana frogaririk itzultzea eta egokitzea izan zen. Horretan ari ginela lehenengo oztupoak aurkitu genituen. Frogaren egitura eta zentzua mantendu nahian, hainbat arlo erraztu eta egokitu izan behar genituen, batez ere, hainbat arrazoiren erredakzio era



Oskar VIGUERA
Lasarte-Oriako PATeko aholkularia

Frogaren oinarria sei istorio hipotetikotan datza, bakoitzean gatazka moral bat agertzen delarik. Ikasleek gatazka moralari irtenbidea eman behar diote. Erantzun hori emateko eskaintzen zaizkien hainbat arrazoi baloratu eta sailkatu behar dituzte.

Derrigorrezko Hezkuntzaren buketan ikasleen artean sortzen ziren emaitzak jasotzea erabaki genuen, eta horretarako, DBHko 4. mailako 415 ikasleek egin zuten frogaririk. Ikasle horiek 19 gela ezberdinetakoak ziren, eta zoriz aukeratutako 18 ikastetxetakoak, publiko zein pribatutakoak.

Emaitzen azterketak zera adierazi zuen: emaitzen eta frogaren barnekoherentzia maila. Ikasle bakoitzeko erantzunak maila batean edo ondoko bi mailen artean kokatzeko tendentzia nabaritzen da. Ez da salto handirik aurkitu oso urrun dauden mailen artean. Beraz, arrazoiketa moralaren progresioa eta atzerazintasuna egiaztatzen dira emaitzetan.

Erantzunak, oro har, beste testu-guruetan lortutakoekin bat datoze. Ez da alde garrantzitsurik ikusten Delga-



Gema DEL RIO
Donostiako IBTko aholkularia


dok eta besteek estatuan lortu zituzten emaitzekin konparatuz gero.

Froga horrek ez digu erantzunetara iristeko jarraitu den arrazoiketa bidearen berririk ematen. Beraz, erantzun bera eman duten ikasleen arteko arrazoiketaren berezitasunak ez ditu kontuan hartzen, eta arrazoiketa horiek zenbait kasutan garrantzitsuak izan daitezke.

Bestetik, frogaririk arrazonamendu moralaren maila neurtu nahi du. Baina, ez da arrazonamendu moralaa garapen moralarekin nahastu behar. Gure ustez, garapen moralaa zabalagoa da, eta arrazonamenduz gain, ekintza eta jarrerekin ere koherentzia eskatzen du.

Gatazkei buruzko eztabaida tresna baliagarritzat hartzen dugu arrazoiketara moralaa lantzeko. Hainbat arrazoierikiko kontaktuak, batez ere ondoko mailakoak baldin badira, goiko mailara pasatzea ahalbidetzen du. Eztabaida horiek ikasleen artean gauzatzen badira, "irekiagoak" azaldu ohi dira.

Tekno



ntz | fz | Hwl tt ck r • E s n
M st r • C m • lv tt • T sh
G uz k k **Me** n tz |

ZE ITZU INF M TIK K

h r r n r r k r n r k
K ntsum r r k
S r k
Int m t
S lm nt untu T r m n l (T V)

r r m n st
S r S n tz l
h r r n r r k r r m k
F r m k untz

Z r tzu t kn k r k
l k nur k r n lu k

TEL 3 5 3 7 7
F X 3 7 7

z t . 7 . 2 ' N STI
t kn 2 t kn 2 . e m

K EMI

kl s r l kul r r k
h r r n r r k k st r k
E x t n ur k s l t n
l k st r k n r s t n

TEL 3 5 3 7 1
F X 3 7 7

z t . 5 . tz (S ug Fn .)
g r t t kn 2 . e m

WEB orria lantzen

Lekua: Informatika Fakultatean, 16 gelan

Uztailak 3

Uztailak 4

Uztailak 5

8:30 Dokumentazioaren banaketa

9:00 Sarrera ekitaldia

9:30

9:00

9:00

- Word testu prozesatzaileak WEBerako dituen funtzioak aztertu.
- Irudien oinarritzko trataera.
- HTML mintzairaren oinarriak.
- Web editore baten oinarritzko funtzioak ikasi (DreamWeaver).
- Webgune baten eraketa: taulak, markoak, irudiak, loturak...
- Artxiboak Interneteko zerbitzari batean eskegi.

* **Lukas Rodriguez Toimil**. . IKTko programaren teknikaria

14:00 BAZKARIA



Web orrien diseinua



Hiru eguneko ikastaro trinko honetan Internet munduan murgildu behar dugu, edo zehatzago esateko, Internet edo Intraneteko edukien argitarapenean.

Hiru egun trinkotako ikastaro honetan Internet munduan murgildu behar dugu, edo zehatzago esateko, Internet edo Intraneteko edukien argitarapenean.

Apunteak, ikastetxeetako web orriak... izango dira ardatz bezala hartuko ditugun adibideak, eta helburua web orrien eraketaren oinarriak ikastea izango da.

Honako hauek izango dira jorratuko ditugun edukiak:

Word-ek ematen dizkigun ahalbideak:

Microsoft etxeko Word testu prozesatzailea da, zalantzarik gabe, gehien erabiltzen dugun tresna informatikoa. Baina askotan ez dugu jakiten eratzen ditugun dokumentuak web orri bihur daitezkeela, eta era errazean, gainera; dokumentua gordetzean "Web orria bezala" aukeran sakatuz, hain zuzen ere.



Lukas RODRIGUEZ
IKTko programen teknikaria

Horrela, gero Nabigatzaile baten bidez ikusta ditzakegu, web orri editore batekin eginak baileuden. Dokumentuz dokumentu joateko aukera ere badugu, testu prozesatzaileek estekak egiteko dituzten funtzioak aprobetxatzen baditugu.

Hori da ahalegin handirik egin gabe ikasiko dugun lehendabiziko gauza: normalean erabiltzen dugun tresna web editore bihurtzen.

Web orrien editoreak:

Bigarrenik, era profesionalean web orriak diseinatzeko erabiltzen diren programen gorabeherak ikusiko ditugu, eta arreta berezia Macromedia etxeko Dreamweaver programari ipiniko diogu.

Webgune baten eraketa, testu eta irudien formatua, markoak eta abar era errazagoan egiten dira editore horietatik. Eta webgune bat eratzeko behar diren oinarriko funtzioak ikasiko ditugu, ipiniko ditugun adibideak gure ingurune hurbilekoak direlarik: ikastetxearen web orria, apunteak edo ariketen publikazioa HTML formatuan.

Grafikoak eta grafikoaren trataera:


Askotan argazki edo irudiak gehitu nahi izango dizkiegu gure lanei erakargarritasun handiagoa emateko. Bada, atal honek ere izango du bere txokoa ikastaro honetan. Irudien digitalizazioaz eta irudiak tratatzeko erabiltzen diren programez hitz egingo dugu, horietako baten oinarriko funtzioak ikasiz gure web orrietan irudiak sartu ahal izateko.

Interneten edo Intraneten argitaratzea:

Amaierako helburua, eta azkenengo urratsa, egindako lana argitaratzea izango da, gure ikastetxe Intraneten edo Interneten.

Horretarako, zerbitzarietara artxiboak bidaltzeko erabiltzen diren FTP programak eta Dreamweaver berak dakarrena aztertuko ditugu.

Ikastaroan egindako adibideak Interneteko zerbitzari batean eskegiko ditugu eta ondoren Internetetik kontsultatu ahal izango ditugu.



Aldizkari elektroni- koaren prestaketa

Lekua: **Informatika Fakultatean, 19 gelan**

Uztailak 3

Uztailak 4

Uztailak 5

8:30 Dokumentazioaren banaketa
9:00 Sarrera ekitaldia

9:30

9:00

9:00

- Erabiliko ditugun tresnak ezagutu:

- Aldizkari elektronikoa bat egiteko behar den CD-ROM bat banatu eta aurkeztu (CD-ROM hau shareware-ko programa, laguntza, irudia eta beste informazio batzuek osaturik izango da).
- M. Explorer nabigatzailearen funtzio nagusiak ezagutu.
- Bilatzaileak (Google, Kaixo, aurki, jalgi, ...).
- Informazio gordeketa (gogokoak, web osoa, irudiak...).
- WORD testu editorea. Dokumentua sortu, formatua eman, taulak, letra tipoak, kopiatu, ebaki, itsatsi...
- PAINT diseinu aplikazioa: tresnak. JPEG eta GIF irudiak sortu.
- Posta elektronikoa. Posta helbide bat lortu doan web orrialde honetan: www.euskalerrria.org/posta.

- Aldizkariaren prestaketa:

- Atalen edukiak prestatu bai ordenagailu gelan, bai kalean, bai liburutegian.
- WORD testu editorea, PAINT eta beste aplikazio batzuk erabiliz elektronikoa moduan aurkeztu.
- Horretarako, lehenago, aurkezpen bateratua egiteko arau batzuk finkatuko ditugu: letra tipoa, tamaina, tituluak, koloreak, bazterrak, hondoa, taulak...

- HTML hizkera bihurketa:

- HTML hizkera lortzeko prozedura WORD testu editorea erabiliz.

- Aldizkariaren diseinua:

- Front Page programarekin markoak sortuko ditugu atal guztiak lotzeko.

- Interneten argitarapena:

- Gure aldizkari elektronikoa kargatzeko web hornitzaile batean web gune bat lortu.
- Windows Commander 32 FTP programa erabiliz prestatuko dugun aldizkaria Interneten kargatuko dugu.

- Ebaluazioa:

- Ikastaroaren balorazioa: zailtasunak, eskolan aplikatzeko aukerak, ondorengo koordinaketa...

* **Miguel Angel LOPEZ LLORENTE.** " Ignacio Aldecoa" Ikastetxe Publikoko irakaslea.

14:00 BAZKARIA



Aldizkari elektronikoarren prestaketa



Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) garapena aldaketa berri eta sakonak ekartzen ari da gure gizartera. Etorkizunari begira, gaur egun zaila da noraino helduko diren jakitea, baina argi dago irakaskuntzak birmoldatu egin behar duela eta IKTak irakaskuntza-ikas-kuntza prozesuan sartu behar ditugula eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatuz

Beste aldetik, komunikabideak gero eta garrantzitsuagoak dira gure gizartean. Horregatik, gure ikasleek nola funtzionatzen duten ezagutzea derrigorrezkoa dela uste dut.

Baina, zein dira baliabide berri horiek eskaintzen dituzten aukerak?

Teknologia horiek ahalmen didaktiko handia dute, batez ere informazioa prozesatu eta sortzeko. Eta jakina, esparru horretan kokatzen da ikastetxeetan eskola aldizkari elektronikoak martxan jartzea.

Dena dela, hasieran behintzat, aldizkari elektronikoak aurrera eramateko nolabaiteko prestakuntza behar da, eta irakasleek izan behar dute, azken finean, proiektu horretako gidariak.

Testuinguru horretan kokatzen da Hik Hasik antolatutako Udako Topaketa Pedagogikoetako "Aldizkari elektronikoaren prestaketa" ikastaroa; hau da, IKTak erabiliz informazioa eskuratu, prozesatu eta elkartrukatzeko baliabideez jabetzea.

Eskola aldizkari elektronikoaren ezau-



Miguel Angel LOPEZ

Erandioko Ignacio Aldekoa ikastetxe publikoko irakaslea

garriak hauexek izan litezke: irakurterraza eta atsegina, estilo arinekoa eta zuzena, bai hurbilean bai urrutian sortzen ari den euren gustuko informazioa ezagutzeko eta trukatzeko aukera ematen duena, eta posta elektronikoaz baliatuz beste ikastetxeetako ikasleekin harremanetan jartzeko aukera eskaintzen duena.

Ikasleak oso gustura erabiltzen dituzte Teknologia Berriak, tresna berri horiekin testuen egitura, ortografia eta sintaxia paperean baino askoz erakargarriagoak eta dibertigarriagoak iruditzen zaizkielako.

Aldizkari elektronikoaren helburuak:

- Tokian tokiko eskola aldizkari elektronikoak sortzea.
- Hainbat tokitan dauden ikasleen artean gauzatzea.
- Irakaskuntza-ikas-kuntza prozesua bizkortzea eta motibazioa eragitea.

- Lan taldeak egitera bultzatzea.
- Hizkuntza (irakurketa-idazketa) sakontzea.
- Plastika eta ikus hezkuntzari dago-kienez, diseinu programek (Paint....) eskaintzen dituzten adierazpen aukerez jabetzea.
- Informazioa bilatu, aukeratu eta antolatzea.
- Ikasleei interesatzen zaizkien gaiak lantzea (prozesu honetan protagonistak sentitzen direnez oso motibagarria izaten da).
- Ikuspuntu praktikoari eta kritikoari eustea.
- Irakasleok elkarlanaren beharraz jabetzea.
- Bestalde, aldizkari elektronikoak prestatzean ikasleek talde lanak elkartasun izpirituz eta erantzukizunez antolatu behar dituzte.
- "Aldizkari elektronikoaren prestaketa" ikastaroan metodologia hau erabiliko dugu:
- Interneten dauden eskola aldizkari batzuk ezagutzea eta aztertzea.
- Aldizkari elektronikoak (pausoz pauso) nola egiten den jabetzea.
- Parte hartuko duten ikasleek fase guztietan modu praktikoan jokatzea.
- Komunikabide honek eskaintzen dituen aukerez eztabaidatzea.
- Eta, azkenik, datorren ikasturterako ikastetxeetan aldizkari elektronikoak sortzen saiatzea eta koordinaketa antolatzea.

Klik

Lekua: Informatika Fakultatean, E8 eta 123 geletan

Uztailak 3	Uztailak 4	Uztailak 5
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa</p> <p>9:00 Sarrera ekitaldia</p> <p>9:30 - Sinera CDaren aurkezpena (Klik programa) eta aplikazio batzuk ireki.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontzeptuak argitu. - Artxibo mota (bmp, gif-mi, dwav-avi, fli), kopiatu eta itsatsi, eta karpetak sortu. - Buruhausgarriak. - Irudiekin (bikoitza, elkartrukea, hutsunea eta memoria motatakoak), sekuentziak, testuak eta memory. - Letra zopa arrunta. - Eskuineko leihoa (testua eta irudiak) - Gurutzegrama. <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Elkarketak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Arruntak: testua-testua, irudi-testua, irudi-irudi. - Konplexuak: idatzizko erantzunak, araketa modalitatea, identifikazio elkarketak, argibide pantaila eta "arit.dll" modulua. <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Testu aktibitateak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hutsuneak bete, testua osatu, letrak identifikatu, hitzak identifikatu, hitzak ordenatu eta parrafoak ordenatu. - Klik pakete arruntak – Klik pakete trinkoak. - Klik pak - kateamenduak. - Trinkotu – destrinkotu. <p>* Jose Manuel Beltran Urzelai. Gasteizko Antonio Lpz de Guereñu IPko irakaslea.</p> <p>* Fultso Crespo Bianako Erentzun ikastolako irakaslea</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Klik programari buruzko azalpen xume batzuk



Lau urteko haur bat tapiz baten gainean dago lankideen izenak dagozkien argazkiekin kokatzen... Bost urteko ikasle bat irakasleak margotu dituen kartulinazko fitzak homan zintzilikatzen ari da belkroz baliatuz

Lehenengo mailan, irakaslearen pazientzia frogatzeko, ikasle batek txitean-pitean galdu duen paperez-ko hitza lurrean bilatzen du

Bigarren mailan, irakasleak, eragiketak idatzi eta fotokopiatu ondoren, banan-banan zuzendu behar ditu...

Hirugarren mailan, fotokopiaz baliatuz, neska-mutilak ulemena lantzen ari dira esaldi batzuekin...

Betiko lana, gogorra bezain astur-irakaslearentzat... betiko asperaldia ikasleentzat. Atzo goizeko kontuak.

Eta lan hori guztia informatika gelara eramaten badugu? Litekeena al da? Galdetzea ere! Haurrak hara joateko irrikitan daude, eta orain giltza bat badaukagu: Klik programa. Tresna hori azalduko lan neketsua laket erakargarri bihurtzeko gai den erreminta da, hain zuzen.

Informatika gelan klaseko haur guztiak beren argazkiak ordenagailuaren pantailan ikusi eta beren izenekin lotzen dituzte. Eta asmatzen duten bakoitzean marrazki bizardun bat agertzen da algaraka.

Pantailan agertzen diren kolorezko hitzak ez dira galtzen... eta amen batean haurrak dagokion lekuan kokatzen ditu



Jose Manuel BELTRAN

Gasteizko Antonio Lopez de Guereñu ikastetxe publikoko irakaslea

esaldia osatzen dituen hitzak... bere erritmoan, jo eta ke, atsedetik hartu gabe.

Irakasleak ez ditu eragiketak zuzendu behar. Ikasle bakoitzak egin duen ariketa-aren txostena klik batekin agertzen da.

Klik programaren bidez hainbat ariketa egin daitezke: hitzak erlazionatu, egia ala gezurra, hitzen artean soberan dagoena baztertu, testuak osatu, hutsuneak bete, puzzleak, serieak, sekuentziak, eragiketak, testuak, ingurunearen liburuan agertzen den edozein fitxa, musikan erritmoa lantzeko, edozein ikasgaietan agertzen diren ariketak... Edozein mailatan eta edozein arlotan ordenagailuaren disko gogorrean hamaika aplikazio eduki ditzakegu erabiltzeko prest.

Une honetan Klik programak 100 jarduera ditu euskaraz, alor guztietan. Eta hori hasiera baino ez da. Astero agertzen dira jarduera berriak. Denetarik dago eta jarduera guztiak irakasleok egindakoak direla azpimarratu behar da.

Lehenengo eta behin, ez dut ahaztu nahi Klik programak ematen digun aban-



Fultxo CRESPO

Bianako Erentzun ikastolako irakaslea

tailarik garrantzitsuena: ekintza berri bat sortzen dugunean gure gelako haurren ezaugarriei egokitzeko aukera, hots, geure ikasleen beharren arabera sor ditzakegu aplikazio zehatzak. Klik programari esker, helburuak, ariketa mota, pausoak, xehetasunak, aurrerapenak... irakasleak aukeratzeko ditu.

Mundu zoragarri honetan murgiltzeko informatika ezaguera sakonak behar al ditugu? Ez, oinarrizkoak baino ez ditugu behar. Betiko Windows-a, eta kito.

Klik erremintaz baliatuz jarduera berriak prestatzea edo eginik daudenak egokitzea lan gogorra dela esan beharrik ez dago. Baina, ez al da nekezagoa eta izugarritzko lana 25 esaldi idaztea, plastifikatzea, moztea eta eskutitzaren azaletan sartzea ikasleek ariketa berehala egingo dutela jakinik?

Klik, zalantzarik gabe, ezagutu ondoren zure lankide handienetarikoa izango da. Eutsi goiari!

Ipuin multimediak sortzen. “Fabula proiektua”

Lekua: Informatika Fakultatean, 19 gelan

Uztailak 3	Uztailak 4	Uztailak 5
8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia		
9:30	9:00	9:00
<p>Tailer gisa antolatzen den ikastaldi hau funtsezko sei urratsetan oinarritzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Testuak numerizatu eta tratatu. - Irudiak numerizatu eta tratatu. - Bozak edo soinuak ordenagailuz grabatu eta tratatu. - Ordenagailuan datutegia antolatu. - Datutegi hori “Fabula” programari txertatu ipuin multimediarara heltzeko. - Ipuin multimedia CD-ROMean grabatu. <p>Sei urratsetan garatuko den ikastaldiari esker, paper euskarrian zegoena multimedia bilakatuko da.</p> <p>* Mixel Jojauria. Lehen Hezkuntzako irakaslea Iparraldeko sail elebidunean. Informatikan diplomatua. IKAS elkarte-burua eta “Fabula proiektu” kidea IKASen izenean.</p>		
14:00 BAZKARIA		



Ipuin multimediak sortzen. “Fabula proiektua”



Fabula proiektua Brighton-eko Unibersitatetik abiatua da duela 2 urte, Viv Edwards-en inguruan (Professor of Language in Education Reading and Language Information Centre The University of Reading Brighton <http://www.ralic.reading.ac.uk>). Helburua du hizkuntza gutituak laguntzea. Europa mailako proiektua da eta arabera diru laguntzak baditu. Ideia da eskualde bakoitzean bi hizkuntzetan idaztea ipuin bat. Adibidez, orain arte parte hartzen dutenetan bada euskara eta frantsesera, katalana eta gaztelania, galesa eta angelesa... Ikus web-gunean: <http://www.fabula.eu.org>

Hortarako logiciel bat muntatu dute (ez da oraino puntu-puntu): Fabula maker. Diaporama baten muntatzeko da, eta Fabula reader diaporama horren irakurtzeko.

Biak erabil errazak dira. Gehienik lehen mailako hurrei zuzendua da. Behar dute erakaslearen laguntzarekin ipuin bat asmatu, ilustratu, idatzi. Horretarako, neurri oneko irudiak eta behar den tamainuko idazkia paperean ongi sailkatu ondoan, ordenagailuan grabatzen dira kontalarien ahotsak, eta marrazkiak eta testua numerizatu. Horiek denak ongi altxatu (gorde) eta gero, Fabula maker-i esker aski fite egiten da muntaketa.

Jakin behar da, beraz, irudien numerizatzen, soinuaren grabatzen edota ordena-



Mixel JORAJURIA
IKASeko kidea

gailuan sartzen.

Hori dugu landuko hiru egunez: bakoitzak baldin badu bere ipuina prest, marrazki eta idazki, hobe. Norbaitek gogoan baldin badu liburuxka bat, ongi ikusiko lukeena lan hortarako, ekar dezala. Zer nahi gisaz, nik ere ekarriko dut gaia.

Lehen egunean teknikaren ikasten ariko gara: irudien numerizatze oinarriko gauzak (ongi bereizi hiru logiciel:

Fabula proiektua horri buruz ari da: Interneten bitartez ipuin horiek zabaltzen Europako haur guzieri

eskanerra pilotatzekoa, irudiak lantzekoa, eta idazkien irakurtzekoa); jakin helburuaren arabera hautuen egiten eskanerra pilotatzean -zenbat DPI...- eta numerizatuaren gordetzeak -jpg, tiff, Bmp...-. Ahotsa grabatzen ere ariko gara: mozten, kopiatzen, kolatzen, goratzen, ezitzen... nahastzen.

Bigarren eguna iraganen dugu datu base baten egiten, ongi sailkatuz irudi, ahots, soinu eta idazki, Fabula-an sartzeko prest izan ditezten.

Hirugarren egunean Fabula maker-ekin bakoitzak diaporama bat sortuko du eta CD-ROM batean grabatuko.

Gogoan izan hiru egunez egin lanak eskas aire bat izanen duela nahitaez; ez dugu epe labur hortan "Koko ezin hobeagoak" ipuinaren heineko lanik aterako.

"Koko ezin hobeagoak" ipuina telekargatzen ahal da. CD-ROMa egina izan da eta Ikas-en salgai da bere liburuskarekin (<http://www.ikas.org>). Fabulako lehen proiektu hori Kanboko Errobi ikastolako andereño batzuk landu zuten... Geroztik ere badute elkar lanean egina euskarako eta frantseseko irakasleek, hurrek eta gurasoek "Saingaka ari zen gata", laster Internet bitartez eskuratzen ahalko duguna. Fabula proiektua horri buruz ari da: Interneten bitartez ipuin horiek zabaltzen Europako haur guzieri; bakoitzak bere hizkuntzan eginikan ere, denek ulert ditzaten ama hizkuntzan ez bada, estatuko hizkuntzan bederen.

Nahi duenak parte hartu, badu zer egin.

Musika

Hezkuntza Berezian

Lekua: **Pedagogia Fakultatean, 1.4 gelan**

Uztailak 3	Uztailak 4	Uztailak 5
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia</p> <p>9:30 Aschero musika sistema</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kodigoari buruzko sarrera - Eduki zientifikoaren euskarriak - Figura eta zenbakien bidezko irakurketa erritmikoa - Kolorearen bidezko altueraren irakurketa - Irakaskuntza arlo guztiak Aschero musika sistemaren bidez globalizatzea curriculum helburuak lortzeko <p>* Jose Ramon Vitoria, Mondragon Unibertsitateko irakaslea</p> <p>11:30 ATSEDENALDIA</p> <p>12:00 Aschero musika sistema</p> <ul style="list-style-type: none"> - Materialen aplikazio pedagogikoa etapa ezberdinetan <p>* Jose Ramon Vitoria</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 Down sindromearen, atzeratuen, autismoaren eta burmuin elbarritasunaren ezaugarri pedagogikoak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Arazo bakoitzaren azterketa - Arlo bakoitzeko ekintza didaktikoak <p>* Jose Ramon Vitoria</p> <p>11:30 ATSEDENALDIA</p> <p>12:00 Down sindromearen, atzeratuen, autismoaren eta burmuin elbarritasunaren ezaugarri pedagogikoak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Musikaren bestelako aplikazioak <p>* Jose Ramon Vitoria</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 Metodologiaren prozedurak eta aplikazioak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Arazo bakoitzaren aplikazioa - Adin eta maila ezberdineko programazioa <p>* Jose Ramon Vitoria</p> <p>11:30 ATSEDENALDIA</p> <p>12:00: Metodologiaren prozedurak eta aplikazioak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Itzulpenak ohiko musika sistematik Aschero sistemara - Konposizio musikala <p>* Jose Ramon Vitoria</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Musika Hezkuntza Berezian



Ikastaro honetan musika irakasteko sistema edo metodologia berri bat aurkeztuko da: Aschero musika sistema. Down sindromea, burmuin elbarritasuna, atzerapen mentala eta autismoa daukaten pertsonentzako metodologia da.

Artetzat zer ulertzen dugun jakiteko, ez dugu ahaztu behar oinarrizko printzipio gisa zentzumeneren bidezko komunikazio harremana, eta ezagupen horren fruitu gisa zentzumenez kanpoko komunikazio harremana (espirituala).

Horrela bada, premisa horretatik abiatuz gero, edozein jarduera artistikotarako ezinbestekoa izango da gure zentzumen eta pertzepzioak (ikusmena, usaimena, entzumena, dastamena eta ukimena) ikertu, aztertu eta estimulatzea. Erabiliko dugun metodologia, beraz, gure zentzumenezko baliabideak aplikatu eta garatzera bideratua dago, gure ikasleak arlo artistikoan gaitzeko helburuarekin (zentzumena-sentitu-sentimendua).

Horretarako, material teoriko eta praktikoa erabiliko ditugu, baina bereziki Aschero musika sistema, programa horrek zentzumen guztiak biltzen baititu.

Zehatzago esateko, Aschero sistemaren egiturak jarduera plastikoan agertzen diren elementu guztiak biltzen



Jose Ramon VITORIA
Mondrago Unibertsitateko irakaslea

ditu (hala nola bolumena, kolorea, materia, forma eta tamaina) eta, era berean, soinuzko jarduera orotan dauden parametroekin (iraupena, altuera, intentsitatea eta tinbrea) elkartzen ditu, usaimen, dastamen eta ukimeneren bidezko hainbat jarduerarekin uztartuz.

Horrela, metodologia horretan zentzumeneren gaitasun guztiak bildu eta landuko ditugu, adin horietan hain garrantzitsuak diren lehen erreferentzia artistikoak izango diren baliabideak esperimentatuz eta estimulatuz. Baina, ez dira orain arte bezala bananduta landuko, globalki, jolas giroan eta era praktikokoan baizik.

Horregatik, orain musika irakaskuntzak garrantzi handigoa dauka eskola barruan, erabiliko ditugun kode eta zeiniek harreman etengabea baitute euren artean. Horrek, era berean, aurre-idazketa eta aurre-matemati-

kan funtsezkoak diren hainbat alderditan eragin positiboa izango du.

Azken finean, diziplina anitzeko irakaskuntza da, diseinu bateratuaren bidez, gai garrantzitsu honi erantzun koherente eta erakargarria ematen diona.

Ikastaroaren eta metodologia horren helburu orokorrak hiru dira. Lehenengoa, era guztietako musika jolasak sortu eta erabiltzeko trebetasuna garatzea haurren partaidetza, autoestimua, sormena, irudimena eta adierazmena bultzatzeko. Bigarrena, irakasleei jolas ariketaren bidez haurren mugimenduak, psikomotritate globala eta gorputz espresioa pizten laguntzea. Eta hirugarrena, musika jolasaren bitartez haurren hainbat estimulu garatzea (lengoaia eta aurre-matematika, arreta, oroimena, kontzentrazioa, abstrakzioa, asoziazioa eta disoziazioa...).

Helburu orokorrak izateaz gain, metodologia horrek helburu musikalak ere baditu. Lehenik, soinuen ezaugarriak bereizteko gaitasuna garatzea (iraupena, altuera, intentsitatea eta tinbrea). Bigarrenik, erritmika adierazpena bultzatzea gorputzaren eta tresnen bidez. Hirugarrenik, entzumena garatzea. Laugarrenik, teklatura jotzen ikastea. Eta azkenik, sormena piztea (interpretazioa, konposaketa...).

Plis-plast(h)ik(h)asi... Plastika, hizkuntza eta dramatizazioa uztartuz

Lekua: **Ekintza Ikastolan, plastika gelan**

Uztailak 3	Uztailak 4	Uztailak 5
8:30 Dokumentazioaren banaketa		
9:00 Sarrera ekitaldia		
9:30	9:00	9:00
<p>- Eszenatokia egiteko marrazkia eta pintura landuko ditugu; diseinua espazio eszenikoa eta egiturak diseinatzeko eta baita (denboraren arabera) jazkerak eta makilaia ere.</p> <p>- Horrekin guztiarekin era praktikoan eta plastika arlotik abiatuz, proiektu eszeniko bat nola gauzatu eta horretarako eman beharrezko urratsak aztertu eta landuko ditugu.</p> <p>- Antzerkiarekin lotura duten teknikak beharrendu eta denboraren arabera lan ditzakegu: gorputz adierazpena, ahotsa eta abar.</p> <p>* Pako Serras. Zarauzko Salvatore Mitxelena ikastolako irakaslea.</p>		
14:00 BAZKARIA		



Plis-plast(h)ik(h)asi... Plastika, hizkuntza eta dramatizazioa uztartuz

Jakina da antzerki saio bat antolatzeari zer erakargarria izan daitekeen ikasleentzat, zer interesgarria hizkuntza arloan ahozketasuna lantzeko eta zer onuragarria ariztasuna eta elkarlana bultzatzeko...

Bai, baina...

Jakin badakigu hiruzpalau arlo ukitu eta landu beharko ditugula ere- Hizkuntza, Dramatizazioa, Plastika eta ziuaren Musika-, eta hori ez dela "ahuntzaren gauerdiko eztula". Baita, askotan hau ikusita atzeraka egiten dugula lehenengo pausoa ez luzatzeagatik, nahiz eta jakin bidaiarik luzeena ere urrats bat emanez hasten dela.

Goazemazu

Nonbaitetik hasi behar, eta goazen bada alde zuzenetik landu den testu dramatiko hori edo antzezteko egokitu den ipuina kolorez eta formaz hornitzera.

Hala ere, aurretik komenigarria litzateke aipatu testua edo ipuina aukeratzeko irakaslea eta ikasleak elkarlanean aritzea ahal den aukerarik onena eta egokiena izan dadin. Antzeleen adina, nahiak... eta baita ikasleak izango direnaren kontuan hartuko ditugu. Horrez gain, testuak ematen dizkigun dramatizaziorako aukerak eta alderdi plastikoak lantzeko aukerak ere gozoan izango ditugu.

Marraztu

Ikastaroan zehar alderdi plastikoari arreta berezia eskainiko diogu. Arkatza hartu eta marrazten hasiko gara. Pertsonaiak nolakoak izango diren, zer itxura, nolako janzkera... Denon ideiak onartzeko eta erabakiak guztion artean hartu ondoren aurrengo zirraborroak egin eta eskuak lapikoan sartuko ditugu.



Pako SERRAS

Zarauzko Salvatore Mitxelena ikastolako irakaslea

Forma ematen (modelatu)

Hainbat teknika erabiliko ditugu marraztutakoari forma eta bolumenta emateko: paper-matxea, paper-pasta, goma-espuma... Horiek nola egin eta eskaintzen dizkiguten aukerak arakatuko ditugu. Emaitzak alderatu eta pertsonaia bakoitzarentzat egokiena litzatekeena eta antzezlanaren "tonuari" atxikituz, lanari ekingo diogu.

Objektuak diseinatzea

Pertsonaiek erabiliko dituzten tresnak, objektuak diseinatzen arituko gara. Batzuetan lor ditzakegunak lortuz, eta besteetan objektuak eraldatuz edo erabilpen sinbolikoa eginaz beraiekin. Lortu ezin ditugunak eraikitzen ahaleginduko gara, betiere objektuak bai pertsonaiekin eta bai dekoratuekin lotuz.

Eta non? (eszenografia)

Ekintzak beti nonbait gertatzen dira, eta non hori ere era sinbolikoan edo errealean adieraz dezakegu dekoratuen bidez. Hauek egiteko hainbat modu eta material behatu, marraztu, moztu, itsatsi, margotu... beharko ditugu.

Baina nola? (Atrezzo)

Eskolak eskaintzen dizkigun aukerak, baliabideak, materialak erabiliko ditugu hein handi batean, baina seguruenik ez da nahikoa izango eta ikasleak inplikatu beharko ditugu materialak biltzen, erropak lortzen... behar dugun guztia eskuratzeko. Hala ere, proiektua bideratzeko, erabili behar ditugun materialak eskuragarriak izan daitezen saiatuko gara.

Antzoki bila

Espazio eszenikoa behar dugu egindako lana erakusteko, zeren hainbeste lan hartu ondoren inork ez ikusteko! Bada egia esan... xedea jendaurrean erakustea da.

Eskoletan leku aproposik dugunik ere ezin esan, orokorrean. Bada, hau ere diseinatu egingo dugu beharrak ezagutzeko: mugikorra behar duela, jasotzeko erraza, leku txikian bildu daitekeena eta abar. Eskuaira eta kartaboa hartu, metroa, planoak egin eta errementaria den guraso edo lagun bat badugu, ezin hobe, berarengana joko baitugu.

Hau al da dena? (espazioa, mugimendua, koreografia...)

Badugu testua, pertsonaiak karakterizatuta, dekoratuak margotuta, antzokia... falta zaiguna taularatzea da. Entsaioak egin, testua dramatizatu, eszenatokian nola mugitu, espazio eszenikoa nola erabili... azken finean, ikuskitzuna eratu gorputz adierazpenetik hasi eta mugimendu koralak sortu arte. Hori ere denon artean erabakiak hartuz (ikasle-irakasleak), ideiak trukatzeko eta parte-hartzea bultzatuz egingo dugu.

Eta hala bada edo ez bada...

Munduko dantzak eskolan

Lekua: Ekintza ikastolan, aretoan

Uztailak 3	Uztailak 4	Uztailak 5
8:30 Dokumentazioaren banaketa		
9:00 Sarrera ekitaldia		
9:30	9:00	9:00
<p>Ikastaroa zeharo praktikoa izango da, beraz arropa eroso eramatea komeni da.</p> <p>Dantzak taldean edo binaka dantzatzekoak dira, eta ikasteko errazak.</p> <p>Saioen hasieran beroketa lanak egingo ditugu eta jolas batzuk.</p> <p>Dantza hauek eskolan adin guztietako hurrekin dantza daitezke.</p> <p>* Arantza Alvarez Garcia. Txingudi ikastolako irakaslea.</p>		
14:00 BAZKARIA		



Munduko dantzak eskolan



Programan azaldu genuen bezala, ikastaro honetan ez dugu dantza egiteari buruzko teoriarik azalduko, alegia, ez da inola ere ikastaro teorikoa izango, guztiz kontrakoa baizik: ikastaro honetan dantza egingo dugu gogotik; teoria gutxi eta mugimendu asko.



Arantza ALVAREZ
Irungo Txingudi ikastolako irakaslea

- Hainbat herrialdetako folklorea ezagutu eta ezagutarazteko.
- Lotsa soinetik astintzeko.

Bukatzeko, hona hemen nolakoa izan daitekeen ikastaro honetako dantza egun bat:

- Aurkezpena
 - Beroketa jolasak (haur txikien dantzak eta dantza librea)
 - Israelgo "Eroa eta Jakintsua"
 - Eskoziako "Cumbreland Ree"
 - Austriako "Die kutsche"
 - Atsedena
 - Lehenengo atalean egindakoari errepa-soa.
 - Errumaniako "Alnelul"
 - Euskal Herriko "Zazpi Jauziak"
 - Eta, bukatzeko, kalejira berezia.
- Edozelan ere, egun bati dagokion egitarautxo hau malgua da, jakina: taldeak hartzen duen erritmoak markatuko du zenbat dantza ikasi eta horien hurrenkera.

Nolako dantzak

Hiru multzotan sailkatuko genituzke ikastaroan ikasiko ditugun dantzak:

a) Munduko hainbat herrialdetako folkloreakin lotutakoak. Horietako batzuk dantza tradizionalak dira, eta beste batzuk tokian tokiko musika tradizionala oinarri hartuta, gaur egun asmatutakoak ditugu. Oso jatorri desberdinetakoak izango ditugu: Euskal Herria, Frantzia, Errumania, Israel, Austria, Grezia, Eskozia... Jatorriaz aparte, bestela ere dantza bakoitzak bere nortasuna du: batzuek erritmo azkar-azkarrak dute, hau da, bizi-biziak dira; beste hainbat geldoagoak dira; batzuk korroan eta bakarka dantzatzekoak dira; beste zenbait, berriz, binakakoak...

b) Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako hurrekin egiteko modukoak. Horietako zenbait Txingudi ikastolako musika irakasleak sortutakoak dira, eta beste hainbat hantzen hantzena ikasitakoak.

c) Dantza librea. Azken hau eta b) tal-

dekoak saioen hasieran erabiliko ditugu gorputza berotze aldera.

Dantza egin, zertarako?

- Lehenik, ondo pasatzeko, bai ikastaroan bai ondoren, dantzak eskolatzen ditugunean.
- Erritmoa lantzeko.
- Elkarren arteko harremanak estutzeko.



Eutonia

Gorputza eta sentsazioak

Lekua: Ekintza ikastolan, musika gelan

Uztailak 3	Uztailak 4	Uztailak 5
8:30 Dokumentazioaren banaketa		
9:00 Sarrera ekitaldia		
9:30	9:00	9:00
Ikastaroa zeharo praktikoa izango da, beraz arropa eroso eramatea komeni da.		
Hasieran, gorputz atalen inbentarioa egingo dugu, atal ezberdinak kontzienteki landuz.		
Ondoren, azala eta artikulazioak landuko ditugu. Horren ostean, oinak eta pelbisa; eta bukatzeko, bizkarrezurra landuko dugu.		
Horretarako, hainbat material erabiliko dugu: teniseko pilotak, gaztainak, banbuak... eta bi motatako lana egingo dugu:		
- Azaletik gorputz barnealdera abiatuz (taktua).		
- Gorputz azaletik kanporantz abiatuz (kontaktua).		
* Luis Goenaga Zangitu . . Medikuntzan, Soin-hezkuntzan eta Filosofian lizentziatua.		
14:00 BAZKARIA		



Eutonia. Gorputza eta sentsazioak




Eutonia hitza (grekerako *eu-*oa, bidezkoa, harmoniatsua, eta *tonos*=tonua, tentsioa hitzetik datorrena) 1957an sortu zen harmoniatsuki orekatutako tonizitatearen ideia adierazteko, zeina etengabe eta zehaztasunez uneko ekintzara edo egoerara moldatzen eta egokitzen dagoen.

Gaur egun tonizitatearen eta bizitakoaren arteko erlazio estuak ezagutzen ditugu, kontzienteki edo inkontzienteki. Gure gorputzaren espresioak zuzenean horien menpe daude, bai jarrerak eta mugimenduak, eta bai arnasketa eta aho-tsa.

Gaur egungo ikerketek garunaren tonuaren eta aktibitatearen arteko erlazio estuak eta etengabeko interakzioak frogatu dituzte. Jarreraren tonua, sistema neurovegetatiboa eta erregulazio fisiologikoen multzoa gure psikearekin estuki lotuta daude. Horrela, modu ezberdinen bidez, gorputzean gure nortasuneko alderdi inkontzientea eta kontzientea adierazten dira. Edozein asaldatzek gure gorputzaren egoera aldatzeaz gain, portaera eta kontzientzia egoera ere aldatzen ditu.

Orduan, ulergarria da tonizitatearen eraginez gizakiaren alderdi guztietan eragitea. Oinarri horren gainean erlaxazio metodo ugari eratu dira.

Haatik, metodo horien helburua oreka eta tonuaren jaitziera lortzea den heinean, erlaxazioaren zentzuan eutoniaren xedea da interesatuari tonu egokia lortzeko aukera ematea, baina ez erlaxazio eta atsedeen egoera bati soilik, baizik eta bizitzako



Luis GOENAGA
Medikuntzan, Soin Hezkuntzan eta
Filosofian lizentziatua

egoera guztiei.

Gainetik bada ere, ikastaro honetan eutoniaren bitartez gaitasun hori zein bidetatik lortzen den ikusiko dugu. Gure praktikak zera erakusten digu: azaleko eta sakoneko sentsibilitatearen garapenaren bitartez lortzen dela sistemetan kontzienteki eragitea. Sistema horiek normalean oharkabekoak izan ohi dira, eta tonu eta oreka neurovegetatiboa erregulatzen dute.

C. G. Jung-ek aktibitate psikikoa lau funtziotan banatu zuen eta bere ikuspegi psikologikotik eutonian funtzio horietako bat garatzen da, zehazki, sentsazioa, zeinak *"benetan present dagoena ezartzen duen"*. Intuizio funtzioarekin batera Jung-ek "irrazionala" deitu zion. Bestetik, pentsamendua eta sentimendua izango lirakeke arrazionalak (1).


W. Jamesek, giza portaera aztertu ondoren, zera ondorioztatu zuen: "gizakiaren gehiengoa ez dago bere gorputzean, ez bere ardatzean, ez bere erdigunean". (2)

Winnicott pediatrak eta beste autore batzuk hau pentsatzen zuten: "lo egitea edo gorputzarengandik bereiztea egoera arrunta da gure kulturaren".

Azken finean eutoniak gorputzean eta sentsazioetan esna egotera gonbidatzen du, bizitzako hainbat egoeratan "orainaz eta hemengoaz" kontziente izatera. Horregatik, baliagarria da egunerokoa bizitzeko.

Interesgarria izango liteke gelako "laborategian" egiten dugun lana gure eguneroko bizitzara pasatzea.

Praktikan bi kontzeptu hartzen dira kontuan: "ukimena" eta "kontaktua". Eta gorputzeko hainbat atalen pertzepzioan eragiten da.



(1) JUNG, C. G.: *Tipos psicológicos*. Edhasa argitaletxea.

GAUMOND, Marcel: *Du corps a l'âme*. Le loup de Gouttière argitaletxea

(2) VISHNIVETZ, Berta: *Eutonia*. Paidós argitaletxea.

Heziketa fisikoko irakasleen txokoa

Lekua: **Pedagogia Fakultatean, 0.4 gelan**

Uztailak 3	Uztailak 4	Uztailak 5
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia</p> <p>9:30 - Eskola-kirola baliabide hezitzaile gisa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Haurtzaroko kirol jardueraren onurak (eremu fisiko, psikologiko eta sozialean). - Egungo errealitatean sumatutako arrisku edo jarduera desegokiak (ikuspegi hezitzailetik). - Hainbat gizatalderen eginkizunak eta jokararen ezaugarriak: gurasoak, monitorea, haurrak. - Motibazioa: garrantzia, eragina eta hobetzeko estrategiak. - Eskola-kirolaren jarduera, bere osotasunean, hezitzaileago bihurtzeko proposamenak. <p>* Luix Mari Zulaika Isasti. Gorputz hezkuntzako irakaslea, pedagogoa eta psikologian doktorea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Natur ekintzak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hitzaldia, natur ekintzetako lau ekintzetan zentratuko da: mendiko txirrindularitza, eskalada, piraguismo eta orientazioa. Saio teoriko-praktikoa izango da (eskaladaren saio praktikoa). <p>* Luis Larrañaga "Pizti". Tuterako Argia ikastolan Heziketa Fisikoko espezialista.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Herri kirolak hezkuntzan. Goizean zehar egingo dugun Herri-Kirolen inguruko ikastaro teoriko-praktiko honetan puntu hauek aztertuko ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Historia. - Garapena. - Gaur egungo egoera. <p>- Arlo teorikoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Herri-Kirolen oinarri teorikoak. - Herri-Kirolen egokitzapena hezkuntzan: materiala, arauak, teknika... <p>- Arlo praktikoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Unitate Didaktikoak. - Jolasak. <p>* Onintza Garcia Udabe. Heziketa Fisikoan espezializatutako Irakasle Eskolako ikaslea. * Leire Cano Txokarro. Heziketa Fisikoan espezializatutako Irakasle Eskolako</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Kirol hezitzailearen bila



Maiz entzun izan dugu haur-arentzat kirola egitea oso on dela, abantaila eta ondorio onuragarri ugari ekartzen baitizkio. Ielo hau kontuan hartuta, gero eta guraso, monitore eta irakasle gehiago saiatzen dira gure haur eta gazte-ak kirol jardueretara bultzatzen. Baina, kirol jarduera beti eta edozein egoeratan al da positiboa haurraren garapenerako? Egiten diren kirol jarduera guztiak al dira hezitzaileak? Uste dut gai honen inguruko eztabaida eta gogoetari heltzeko garaia iritsia dela.

Hasteko, arestian aipaturikoarekin lotuz, jarduera fisikoak ekar ditzakeen onurak era laburrean azaldu nahi nituzke.

Arlo fisiologikoan: defentsak indartu organismoaren bizitza kalitatea hobetuz eta luzatuz; lokomozio aparatua sendotu, bai giharrak, bai eta hezurak ere; hazkuntza kartilagoak suspertu; bihotz eta biriken gaitasuna areagotu, odolaren oxigenazioa hobetu, zirkulazio hodiak handitu eta bigundu; gehiegizko gantzak xahutu; nerbio sistema landu koordinazio eta trebetasunak garatuz...

Arlo psikikoan: burmuineko nerbio egituren eta psikomotrizitatearen garapena; funtzio mentalen hobekuntza, hots, adimena, mintzaira eta afektibitatea; zentzumeneren gaitasun hartzaileak eta erabakiak prozesatzeko gaitasuna bizkortu; lankidetzara jorratu giza harremanak eta elkarren arteko errespetua landuz, sozializazio eta integrazioarako lagungarri; agresibitate, antsietate, tentsio eta estresa gutxitu oreka emozionalerantz lagunduz; autokontrolatzen eta norbere irudia eta autoestimua hobetzen lagunduz; arauak eta emaitzak onartzen erakutsi, helburu bat lortzearen saiatu eta lan eginez.

Beraz, ez da makala kirolari esker eskura



Luix Mari ZULAIKA
Psikologian doktorea
Ordiziako Oianguren-Urdaneta Institutuko irakaslea

daitezkeen ondorio, balio eta ontasunen zerrenda.

Aipatu den eran, ondorio horiek egoera guztietan jasotzen ote diren aztertu nahi da. Hau da, kirol jarduera edozein izanik ere, ea beti, baldintza eta testuinguru guztietan, ontasun horiek eskuratzen ote diren.

Horretarako, lehenik eta behin, kirol jarduera guztiak berdinak ote diren baloratu beharko dugu, hau da, antolaketa guztiak xede bera ote duten. Denok kirolaz kontzeptu edo ikuspegi bera ote dugun, alegia.

Manikeistak izateko asmorik ez badugu ere, azaleko analisi batetik bere helburua sailkapen irizpidetzat hartuz, kirola bi ikuspegitan bereiztu ohi dugu:

Lehiakorra, ikuskizuneko edo goimailakoa: nola edo hala garaipena lortzea da helburua, eta horrek gainontzeko guttia baldintzatzen du. Gaitasun maila onkoek bakarrik har dezakete parte. Emaitzak, errendimendua, izarren gorapimena, ikuskizuna, interes komertzial eta ekonomikoen inguruan antolatzen da.

Herritarra, hezitzailea edo aisialdikoa: helburu ludikoa du, disfrutatzea, ondo pasatzea; eguneroko kezkek baztertuz bizi-kalitatea hobetzea, finean. Guztiontzat irekia dago. Osasuna eta lagunarteko giroa berezko ezaugarriak ditu.

Eskola kirola eta, oro har, haurtzaroan buruturiko kirol jarduerak bigarren multzoko ikuspegian kokatu beharko genituzke. Adin honetan gauzaturiko kirol jardueren helburua haurren osoko garapena eta beren nortasun eta izaeraren eraketan laguntzea izan behar luke.

Errealitatean ordea, zenbait kasutan, goi mailako kirol lehiakorrean dugun ikuspegia bere horretan haurren kiroleko jardueretara transferitzen dugu, erabateko mimetismoz, inolako egokitzapenik gabe. Ondorioz, ezin daiteke esan jarduera horien eragina hezitzailea edo adinari egokiturikoa denik.

Pedagogiaren ikuspegi edo irizpidetik haurraren formaziorako desegokiak diren ezaugarrien artean, kirolean inoiz ondorengoak aurki daitezke: gehiegizko lehiakortasuna edo konpetibitatea, ingurunearen gehiegizko presioa, helburu desegokiak, konparaketa soziala, espezializazio goiztiarra eta hautapenerako irizpide zorrotzeak.

Esandakoak esan ondoren, kirol hezitzaileak behar lituzkeen ezaugarriak zerrendatuko ditugu ikastaroan. Kirol jardueran parte hartzen dugun gizatalde guztiok (guraso, entrenatzaile, irakasle, komunikabide, antolatzaile eta abarrok) kirol jarduera hezitzaileago bihurtzen saiatu behar dugu.

Gauzak horrela, beraz, denon laguntzari esker eskola kirola hezitzaileagoa bihurtuko genuke. Uste dugu helburuak merezi duela. Ekin diezaiozun, bada.

Natur ekintzak

Azkeneko hamarkada hauetan gizartean aldaketa handiak gertatu dira (lan ordu kopuru gutxiago, eskoletan ordutegi trinkoa, langabezia, poltsikoan diru gehiago, ama eta aita etxetik kanpo biak lanean...). Denboraren pertzepzio berria sortu da eta gero eta garrantzitsuagoa bihurtu da aisialdia eta denbora librearen hezkuntza.

Arrazoi askorengatik proiektu kurrikular askotan errealitate hori ez da islatzen, eta hortik dator natur ekintzen inguruko eskaintza. Guk jorratzen dugun arloa ez da zerbait itxia eta mugi ezina, gure materialak eta ekintzak diseinatzeko aukera dugu.

Ia denok kritikatu izan dugu guk bizi izan genuen heziketa fisikoko eskolako esperientzia. Beraz, ez da aukera txarra gure ikasleei gaur egungo gizartean bizitzeko egokitze eta mugimenduzko gaitasunak hobetu eta aberasteko denbora libre nola bete erakusten badiugu. Hone-la, denbora libre era osasuntsuan betetzeko aukera izango dute.

Inguru naturalean landuko ditugun jarduera hauek izaera irekia izango dute. Horien bitartez estereotipo ezagunei ez diegu lekurik utziko. Ekintza horietan ezusteko handiak izango ditugu, ez baitira beti mutirik izango trebeenak. Gehienetan ikasle guztiak hasierako maila antzekoa dute. Ez da horrela suertatzen beste kirol batzuetan (futbolean, saski-baloian...). Ikaslea ez dago duen trebetasun mailarengatik parte hartzeraz baldintzatuta, eta beraz, ikasleen partaidetza ziurtatuta dago.



Luis LARRAÑAGA
"PIZTI"

Tuterako Argia ikastolan Heziketa Fisikoko espezialista

Inguru naturala eremu egokienetakoa da guk bultzatzea nahi dugun hezkuntza osoa eta integrala garatzeko. Gorputzaren kontrola hainbat jarduera eta ingurutan lortzeak beraien garapenean hobekuntza ekarriko du. Ikasleak abentura bila abiatzen dira, lau hormen artean eta egun osoan eserita egotetik eremu zabaletara ateratzen dira, beraien ikusmena eta barne egoerak lasaitzen direlarik. Gai eta inguru berriak ezagutzea, arriskua dagoen momentuak bizitzea eta antzeko esperientziak oso erakargarriak suertatzen zaizkie.

Autonomia eta lankidetzaren garatzeko jarduera ezin hobeak direla probatzeko aukera eta beharra izango dute ikasleek. Batzuetan lagunaren segurtasuna bere eskuetan egongo da, eta berea lagunaren eskuetan (eskaladan); bestetan norberaren erabakiak era zuzenean izango du eragina (orientazioan galtzeko arriskua, okerreko erabakia hartuz gero) edo taldean adostu beharko dute zein den erabaki hobena.

Era teorikoan planteamendu hau guztiontzat erakargarria da, baina antolaketa- ren aldetik arazoak ekartzen dizkigu. Ikastetxetik atera beharra egoten da, garraioa antolatu eta, kasu askotan, ordutegia egokitu beharra. Horrekin batera prestakuntzan ez gara oso eroso sentitzen. Horregatik, albo batera gelditzen dira teoriaraino hain politikak iruditzen zaizkigun jarduerak. Baina arazo guztien gainetik, jarduerak eskaintzea oso aberasgarria da, ikasleen motibazioa hasi aurretik lortzen baita, eta hori abiapuntu hobezina da.

Topaketa hauen helburua prestakuntzan dauden oinarrizko hutsuneak bete eta arazoaren gainetik irakasleria jarduerak eskaintzera animatzea da. Lau unitate didaktikoren garapena ikusteko eta eztabaidaren bitartez gure zalantzak argitzeko aukera izango dugu.

Natur ekintza jardueren artean zer irakats dezakegu? Aukera oso zabala da, eta zerrenda honetan horietako batzuk agertzen dira: orientazioa, ibilaldiak, kanpaldiak, mendizaletasuna, espeleologia, eskalada, mendiko txirrindularitza/zikloturismoa, eskia, piraguismoa, bela, hainbat jardueren arteko nahasketak...

Topaketa hauetan lau jarduera zehaztuta zentratuko gara, landutako unitate didaktiko hauen azalpena ikusiko dugularik: piraguismoa, mendiko txirrindularitza, eskalada eta orientazioa. Guztion ekarpenekin ziur topaketa interesgarriak suertatuko direla. Ikusi arte!



Herri kirolak hezkuntzan



Ikastaro honetan herri kirolen historia, garapena eta gaur egungo egoera ikusiko ditugu hasieran. Ondoren, bi atal jorratuko ditugu, teorikoa eta praktikoa.

Hasieran, atal teorikoan, herri kirolen historia jorratuko dugu, jatorritik izan duen garapena gaur egungo egoera arte.

Ondoren beste hainbat arlo landuko ditugu, hala nola, materiala, arauak, teknikak... Betiere hezkuntzarekin erlazionatuz eta egokituz, eta kutsu praktikoa eta erabilgarria ematen saiatuko gara. Garrantzi handia emango zaio parte-hartze aktiboari, ikastaro honetara etortzen diren guztiek hainbat ekintzetan parte hartuko dutelarik.

Azkenik, atal praktikoa garatuko dugu gimnasioan eta beraz, parte-hartzaileek arropa eroso ekar dezaten



Onintza GARCIA

Heziketa Fisikoan espezializatutako
Irakasle Eskolako ikaslea
"HERRI KIROLAK lantzeko fitxa
didaktikoak" lanaren egilea



Leire CANO

Heziketa Fisikoan espezializatutako
Irakasle Eskolako ikaslea
"HERRI KIROLAK lantzeko fitxa
didaktikoak" lanaren egilea

komeni da. Hainbat jolas proposatuko ditugu, aurretik ikusitakoa praktikan jarritz.

Baliabideei dagokionez, saiatuko gara gaur egungo teknologia berriak erabiltzen (ikus-entzunezkoak), egune-

roko jardunerako erabilgarriak eta baliagarriak izan daitezkeela frogatuz. Bestalde, ahalik eta material ugariena eta anitzena biltzen saiatuko gara, herri kirolak hezkuntzara egokitzeko beharrezkoak direnak.



Praktika psikomotrizaren adinkako analisia

Lekua: **Pedagogia Fakultatean, 1.1 gelan**

Uztailak 3	Uztailak 4	Uztailak 5
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia</p> <p>9:30 E- Bernard Aucouturier-en praktika psikomotrizia: haurraren heltze psikologikoaren prozesua, bere dinamikaren ulermena.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eskolan bat-bateko ekintza eta jolasaren zergatia. - Espresibitate motrizia (gorputz afektiboren eta pentsamenduaren batasuna haur txikiarengan). - Destrukzio-konstrukzio dinamika (egin-eragin) heltze psikologikoaren derrigorrezko prozesu bezala. - Gorputza eta mugimenduaren garrantzia haur txikiaren heltze psikologikoaren prozesuan (plazera eta displazera). - "Bestea"-rekiko harremana: heltze psikologikoaren prozesuan eta identitate eraikitze prozesuan duen garrantzia. <p>* Alvaro Beñaran Aranzabal. Pedagogia terapeutikoan lizentziatua. Psikomotrizitatean hezitzaile eta terapeuta. NAHIA Zentruko kidea eta Bergarako UNEDeko Bernard Aucouturier Psikomotrizitate Eskolako irakaslea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Zer gertatzen da psikomotrizitate gelan 0-3 urteko haurrekin?</p> <p>Praktika psikomotrizaren esperientzia bat aurkeztuko dugu eta ondoren adin horietara zuzenduriko esperientzia honen gaineko iritzirik trukaketa egin nahiko genuke.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Saioen garapena: denboraren, espazioaren eta materialaren antolaketa. - Psikomotrizistaren esku-hartze zehatzak adin horiekin. - Praktika psikomotrizak gure hezkuntza jardueran duen eraginaren inguruko hausnarke-ta. <p>* Josefa Rufina Martin, M^a Jose Armendariz Leunda, Lourdes Garijo Casado eta Monserrat Meana Martinez. Gasteizko Udaleko Udal haur eskoletako hezitzaileak. Psikomotrizitate praktika hezitzailean pres-tatuak.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Psikomotrizitate praktika hezitzaile (HHko bigarren zikloan -3/6 urte)</p> <ul style="list-style-type: none"> - 3-6 urteko haurra - Helburuak: haurraren heltze psikologikoaren prozesuan lagundu (komunikazioa, sormena eta pentsamendua garatu). - Psikomotrizistaren jarrerak. - Psikomotrizitate gela: lekuak eta materialak. - Psikomotrizitate saioa: heltze ibilbidea. <p>Egite plazeretik pentsatze plazerera. Uneak eta ekintzak, espresibitate motrizetik espresibitate plastikarantz.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Saioa eta haurren behaketa. Erabilitako parametroak. <p>* Alvaro Beñaran Aranzabal.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Haurraren heltze psikologikoaren prozesua

Gai honen inguruko bi saio eskainiko ditu eraille honek bi egunetan.

1.- Haurraren heltze psikologikoaren prozesua, bere dinamikaren ulermena.

Psikomotrizitate ikuspegitik hezkuntzaren helburuak komunikazioa, sormena eta dezentrazioa (pentsamendu operatoriorantz zabaltea) ditugu. Helburu horiek batean labur daitezke: haurra autonomoa izatea. Hau da, bere heltze prozesuaren subjektua izatea, eta ez hezitzaileen proiektuen objektua. Horrek haurraren ekintzari, hitzari, adierazpenari eskolan lekua ematea esan nahi du. Beraz, konfiantzazko eta segurtasuneko giroa sortzea izango dugu Haur Hezkuntzan helburua.


Zertarako? Haurrak bere burua azaltzeko eta mundua esploratzeko aukera izan dezan. Segurtasun hori hezitzailearen jarreretan oinarrituko da, batez ere afektibitatea eta frustrazio legea argitasunez azaltzean.

Beraz, aukera hori ematen duten espazioak eta denborak sortu behar ditugu. Horien artean, praktika psikomotrizitatea proposatzen dugu.

0-6 urteko haurrak badu oinarritzko ezaugarri bat: bere ekintzetan oso-osorik inplikatzeko da (gorputz mailan, afektiboki eta kognitiboki), eta baliabide garrantzitsuak ditu gorputza eta mugimendua pixkanaka-pixkanaka ahozko komunikaziorantz eta pentsamendurantz bideratzeko.

0-6 urteko haurren bizitza "egitea" da, eta beren "egite" hori batez ere jolasa da: beren gorputzarekin egiten dituzten jolasak, jolas sinbolikoa, plastika jolasak, eraikitze jolasak... bere burua adierazteko eta besteak eta mundua ezagutzeko baliabideak direnak.

Eta nola iristen da haurra egite edo sortze dinamika horretara? "Bestea" rekin izaten dituen harremanen bitartez. Eta harreman horietan plazera da bizitzeko, izateko, komunikatzeko eta gogoia sortzeko oinarria. "Elka-



Alvaro BEÑARAN
Pedagogia terapeutikoan lizentziatua

ren arteko plazera" esan dezakegu, haurraren plazera "beste"aren plazerean oinarritzen baita.

Baina, "egitea", "eraikitzea", ez da prozesu lineala, dialektikoa baizik; hau da, kontrakoak batu behar dituen: **haurrak eraikitzeko (autonomian) "suntsitu" egin behar du!** (hau probokazioa pedagogian, ezta?). Hone tan Winnicott-en diskurtsoa dugu erreferentzia. Oso laburki esanda honako hau da: haurrak "objektua" eraikitzeko eta erabiltzeko "suntsitu" (eragin) egin behar du. "Suntsiketa" horren aurrean "objektuak" "bizirik" jarraitu behar du. Orduan, haurrak objektu hori bere omnipotenziatik kanpo aurkitzen du, independientea bezala. Une horretan haurra prest dago objektu hori erabiltzeko (haurra dagoen "nahasketa"tik ateratzen da: "ni" eta "objektua" dikotomia beharrezkoa da haurraren heltze prozesua aurrera joateko. "Ni" eta "ez ni" bereiztea funtsezkoa da). Honek zerikusi handia du ikuspegi konstruktibistarekin eta haurrari "gaizki edo huts egiten" uztearekin ikaste prozesuaren barruan.

Beraz, eskolak munduan egiteko eta eragiteko aukera eman behar dio haurrari autonomo prozesu horretan murgildu nahi badu.

2.- Psikomotrizitate praktika hezitzailea (HHko bigarren zikloan, 3-6 urte)

3-6 urteko haurrak bestereangandiko banaketa prozesua burutu duenez, bere burua eta bestearen iraunkortasuna barneratu dituzte, autonomia bidean zeharo murgildurik dago.

Esfinterren kontrola, gorputzaren kontrola, hitzaren garapena, baliabide sinbolikoen garapena... aldaketa anitz aurkitzen ditugu aurreko zikloarekin alderatuz.

Pentsamendurantzako bidea irekita dago, sozializaziorako bidea ere bai, baina haurra oraindik oso zentratuta dago bere baitan.

Dezentrazioa eta sozializazioa ez dira izango ziklo honetako abiapuntuak, helmugak baizik.

Haurrak oraindik lan handia du bere buruarekin: denbora, espazioa eta materialak behar ditu bere baitan lasai zentratzeko eta plazerean bizitzeko, egite plazeretik pentsatze plazerera pasatzeko.

Egin eta eragin egin behar du: bere gorputza eta mugimendurekin, objektuekin, besteekin (lagunak eta helduak)... bere burua ziurtatu, bere burua ezagutu... behar du marko baten barruan, marko hezitzaile baten barruan. Baina haurrak hori guztia egin dezake bere premia, gogo, gaitasun, zailtasun eta beldurrak entzungo dituen heldu bat prest baldin badago, bai eta ez esaten dakien heldu bat, gertu eta urruti egoten dakien heldu bat, bere identitatea galdu gabe haurraren identitatea errespetatzen duen heldu bat.

3-6 urteko haurrentzako psikomotrizitate gelan hori guztia eskaintzen saiatzen gara; espazioak, denborak, materialak, jarrerak sakonki aztertzen, adin horietako haurrei erantzun egokia eman ahal izateko.

Haur Hezkuntzan pertsonaren oinarriak lantzen ari gara, eta gure gizartean ematen zaiona baino garrantzia handiagoa du horrek.

Zer gertatzen da psikomotrizitate gelan 0-3 urteko haurrekin?

Gasteizko Udal haur eskoletako hezitzaileak eta Bergarako Eskolan ikasitako psikomotrizistak gara. 6-10 urteko esperientzia daukagu tutore eta psikomotrizista bezala 0-3 urteko haurrekin. Gasteizko Udal haur eskola guztiek ez dituzte 0-3 urte bitarteko haurrak hartzen: batzuetan sehaskan dauden haurrak edo oinez ez dakitenak daude; beste batzuetan, aldiz, urte eta erditik gorakoak. Hori bai, guztietan daude 2 urteko haur taldeak.

Bergarako eskolaren bitartez iritsi zitzaigun topaketa hauetan parte hartzeko gonbidapena. Gure taldea orain dela 5 urte inguru hasi zen lanean eta beharraren ondorioz sortu zen. Esperientziak, kezkek, ezinegonak, inpresioak, beldurrak... konpartitzeko beharretik, hain justu.

Urte hauetan zehar galderak sortu izan zaizkigu, eta sortzen zaizkigu oraindik ere, eta talde txiki honetan erantzunak bilatzen ditugu. Zenbait ondoriotara iritsi gara, eta batez ere, gure esperientziak elkartrukatzeko konplizitate nahikoa lortu dugu.

Hori guztia konpartitzeko asmoz gatzoz topaketa hauetara: praktika psikomotrizeko esperientzia eta eguneroko lana, saioetatik, ekintzetatik, harremanetatik eta espazioarekiko erlazioetatik eta objektuetatik abiatuz. Aldagai horiek haurren egoera islatzen digute. Adin hauetako haurrekin oinarrizko printzipioa zera da: jakitea eta kontuan hartzea ekintza dela hau-



Mari Jose ARMENDARIZ



Josefa Rufina MARTIN



Lourdes GARIJO



Montserrat MEARA

Gasteizko Udal haur eskoletako hezitzaileak. Psikomotrizitate praktika hezitzailean prestatuak

rrak ulertzeko eta munduarekin erlaxionatzeko daukan erreminta, gorpuztaren eta keinuen hizkuntza (tonua, jarrerak, begirada, adierazpenak...) ahozko hizkuntzaren gainetik baitago.

Bernard Aucouturier-ek proposatutako praktika psikomotrizak espazioaren bora markoaz eta haurrekin dagoen helduaren interbentzio espezifikoaz hitz egiten digu. Behaketa aktiboaren bidez eta haurren ekintzan parte hartuz ematen diegu zentzua bere produkzioei, eta bere eskaereta

egokitzen gara.

Praktika hau, hezitzailea izateaz gain, prebentiboa ere bada. Izan ere, haurrari leku pribilegiatua eskaintzen dio bere beldurrak, larritasunak, beharrrak, gatazkak, pultsioak... adierazteko.

Gure agerpena bukatzeko zera azpimarratu nahi dugu: praktika hau egiteko, egoteko, begiratzeko eta haurra ulertzeko modu bat bilakatu dela gela-ko eguneroko lanean, eta ez psikomotrizitate gelan soilik.

Lau musika tresna berri zure esku



Etxerako zein eskolarako musikaren historia ezagutzeko bideoak.

Eskolan nahiz etxean, musika mota desberdinak ezagutzeko ezinbesteko materiala aurkezten dizuegu. Eskolan, DBHko ikasleekin lan egiteko. Etxean, musikari buruzko informazioa eskura edukitzeko.

KLASIZISMO eta ERROMANTIZISMO garaiko musikaren historia, XV. mendetik XIX. mendera bitarteko EUSKAL KLASIKOAK eta MUSIKAREN MERKATU TXIKIAREN inguruko gorabeherak biltzen dira lan berri eta osatu hauetan.

Ordubeteko lau bideo hauek gidaliburuxka batez lagundurik azalduko zaizkizue, bertan, bideoaren helburu pedagogikoak eta garai bakoitzeko informazio ugari eskaintzen delarik. Bakarka nahiz laurak batera eros daitezke.



Produktu hau esperientzia pedagogiko zabala duen profesional talde batek egingo da, musikaren historia edozeini, baina bereziki DBHko ikasleei, gerturatzeko asmoz.

Informazio gehiago jasotzeko bidali kupoi hau **943 463 555** FAXera, edo postaz helbide honetara: **Xirula Mirula, Katalina Erauso, 12 behea, 20010 Donostia.**

Zure eskaria azkarrago egin nahi baduzu, deitu **943 463 555** telefonora.

Izen-deiturak:.....

Lanbidea:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Probintzia:.....

Kodea: _____ Tel.: _____

Euskaraz aritzeko kantak eta jolasak

Lekua: Donostiako Irakasle Eskolan, musika eta soinketa geletan

Uztailak 3	Uztailak 4	Uztailak 5
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia</p> <p>9:30 - Sarrerako jolasak: izenak ikastekoak (armiarma, mimoa...) eta girotze jolasak (korapiloa...) - Jolas tradizionalak eta berriak: - zotz era ezberdinak - soka-saltoan aritzekoak - behatz jolasak * Leire Elices eta Harkaitz Izagirre, Hik Hasiko "Haur-jolasen abestiak" ikastaroko emaileak</p> <p>11:30 ATSEDENALDIA</p> <p>12:00 Jolas tradizionalak eta berriak: - txalotakoak - aukerako jira-biraka alaiak - asmakizunak - ... * Leire Elices eta Harkaitz Izagirre</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 Jolas tradizionalak eta berriak: - gomatan aritzekoak - hizkuntz jokoak (aho-korapiloak, ikusi-makusika, errima jolasetan) - talde jolasak (zubiri-zubiri, magila, banpiroa) * Leire Elices eta Harkaitz Izagirre</p> <p>11:30 ATSEDENALDIA</p> <p>12:00 Jolas tradizionalak eta berriak: - kulunpiotakoak - erritmoa lantzeko jolasak - imitazio jolasak - ... * Leire Elices eta Harkaitz Izagirre</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 Jolas tradizionalak eta berriak: - "kantineritaren" antzekoak - ezkutaketan aritzekoak - bidai abestiak * Leire Elices eta Harkaitz Izagirre</p> <p>11:30 ATSEDENALDIA</p> <p>12:00 Jolas tradizionalak eta berriak: - dantzA ezberdinak - aulkien jolasak - txakolinke, barraskilo, baloi, gaileta... jolasak * Leire Elices eta Harkaitz Izagirre</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Haur-jolasen abestiak

- Zer, jolastuko al gara zerbaitetan?

- Hasi, Bixen, zotzetan!

- Dona dona katona...

Modu horretan ekiten diogu jolasari. Hortik aurrera bakoitzaren fantasia eta irudimena jolasteko nahiarekin elkartu, eta lapiko handi batean nahastuko dugu *erre-zeta* honen osagai gisa.



Leire ELICES

Hik Hasiko "Haur-jolasen abestiak" ikastaroko emaila



Harkaitz IZAGIRRE

Hik Hasiko "Haur-jolasen abestiak" ikastaroko emaila

Ikastaroa bera izango dugu erre-zeta, eta lapikotik aterako dugun jakia euskal jolasez beteriko plater goxogoxoa izango da.

Ikasturte honetan zehar horrelako menua eskaini dugu hainbat eskolatan; hartzaileak ederki asetu direlakoan, Udako Topaketa hauetan dakarkigu nahi duenak dasta dezan.

Jateak plazerra ematen duen modu

berean, jolasak ere gozamina eskaintzen digu beste hainbat bizipen eta balioen artean. Esaterako, sozializazioa, lankidetzeta, autonomia, trebetasuna...

Halere, euskaraz jolastearen garrantzia azpimarratu nahi genuke ikastaro honetan. Gauza jakina da, gaur egungo haur gehienek gaztelaniaz

jolasteko ohitura jasotzen dutela euskara albo batera utziz. Guk pentsatzen dugu euskal jolasen artean askotan errepikatzen diren gutxi horiek besterik ez ditugula ezagutzen. Baina hizkuntz ohituren aldaketak fruituak izan ditzan, euskal jolas berriekin motibatu behar ditugu haurrak.

Jolasen sailkapen bat egitearren, hainbat motatakoak ezagutuko ditugu: zotz egiteko kantuetatik hasita, sokasaltokoak, esku-jolasak, gomatakoak, korroan-lerroan aritzekoak, dantza-jolasak eta animazio-jolasak, besteak beste.

Beraz, mahaia zerbitzaturik dagoen honetan, jolastea besterik ez da falta, ikasteko modurik egokiena jolasean jardutea dela defendatzen baitugu. Gauzak ekinaren ekinez egiten dira, eta benetan, jolasaren xarmaz gozatuz, oso ongi pasatuko dugu!



Hizkuntza idatzia eta ikasleen aniztasuna

Koordinatzailea: Matilde Sainz

Lekua: **Pedagogia Fakultatean, 2.1 gelan**

Uztailak 3	Uztailak 4	Uztailak 5
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia</p> <p>9:30 - Hizkuntzaren Didaktikaren erronka berriak. * Matilde Sainz Osinaga. Mondragon Unibertsitateko irakaslea.</p> <p>- Hizkuntzen curriculum bateratua. Zenbait zertzelada. * Pili Sagasta. Mondragon Unibertsiti- tateko irakaslea.</p> <p>- Sekuentzia Didaktikoa, izaera eta fun- tzionamendu. * Pilar Labayen. Nafarroako ILZ.</p> <p>- Sekuentzia Didaktikoaren barnean esku-hartze psikopedagogikorako zen- bait estrategia. * Mariam Bilbatua. Mondragon Uni- bertsitateko irakaslea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Argibide testutik azalpen testura: hitz egin eta idatzi ikasteko. Gelan gauzatu- tako kimikako esperientzia baten gogoeta. * Joaquim Dolz. Ginebrako Unibertsiti- tateko irakaslea.</p> <p>- Sekuentzia didaktiko baten adibidea. * Mariam Bilbatua, Lurdes Etxeberria eta Marisol Etxabe.</p> <p>- Sekuentzia didaktiko baten adibidea. * Lurdes Rodriguez. Urretxuko Gain- zuri eskola publikoko irakaslea.</p> <p>- Ekoizpen idatziko estrategiak. Tailerra. * Montserrat Castelló. Kataluniako Unibersitate Autonomoko irakaslea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Argumentuzko testuen idazketa Lehen eta Bigarren Hezkuntzan. Ikaspe- nen aurreratzeari buruzko ekarpen berriak. * Joaquim Dolz.</p> <p>- Ikasleek idazketaz duten ezagutza. * Montserrat Castelló.</p> <p>- Zer ikasi dute ikasleek Sekuentzia Didaktikoaren bidez? Ikasleen aurreko testuak eta ondorengo testuak. * Matilde Sainz eta * Ines Garcia. EHUko irakaslea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Hizkuntzaren Didaktikaren erronka berriak



Didaktikaren esku-hartze guztietan irakaslea da elementurik garrantzizkoena, eta berak hartuko dituen erabakiak –curriculumaz, irakasteko objektuez, ikasteko teoriak, irizpide metodologikoz...– ikasleen ikaskuntzari eta motibazioari eragingo diote, zalantzarik gabe. Hala ere, bere usteak gelan hartuko dituen erabakietan ere islatuko dira, alegia, ikaskuntzaz, irakaskuntzaz, sisterez, curriculumaz, ikasleaz eta bere formazioaz, portaeraz, motibazioaz, mortasunaz eta abarrez dituen usteak. Irakaslearen garrantzia ikusirik, bere profila zehazten saiatuko gara lan honen bidez, jakin arren profil hori dinamikoa dela eta haren egingo diren zehaztapenak osagabeak ere izan daitezkeela. Irakaslearen profila zehaztu aurretik, ordea, gaur egun Hizkuntzaren Didaktikak dituen erronka berriez arituko gara.

Gaur egun ezin dugu ezertaz hitz egin gizaritean bizi ditugun aldaketa azkarrak kontuan izan gabe. Aldaketa horiek hainbat gertakariren menpe gertatzen ari dira, baina horietatik nabarmenenak hiru ditugu: globalizazioa, migrazioak eta teknologia berriak. Hiru eragile horiek modu batera edo bestera munduko hiztunengan eta hizkuntzetan eragiten ari dira, eta, ondorioz, hizkuntzekin erlazioatutako kontzeptuak ere aldatzen ari zaizkigu, didaktika barne. Horien artean ditugu eleaniztasunaren kon-



Matilde SAINZ

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea

tzep-tua, giro hizkuntzaren kontzeptua, lehenengo eta bigarren hizkuntzen kontzeptuak eta abar.

Didaktikak jasan dituen aldaketak izaera anitzekoak izanik ere, irakaskuntza/ikas-kuntzaren markoa taxutzen dute guztiek. Horregatik, horiek guztiak biltzeko marko-rik koherenteena irakaskuntza/ikas-kuntza-ren markoa bera izan da: hiruki didaktikoa. Dakigunez, irakaskuntza/ikas-kuntza fenomeno guztiak hiru elementu hauen interakzioari esker gertatzen dira: irakaslea, ikaslea eta irakas/ikas-gai den objektua –euskara, gure kasuan–. Ondotxo dakizue, hiruki didaktikoaren elementuak dinamikoak direla: ikasleengan aniztasuna aurkitzen dugu –herri ezberdinetako ikasleak ezberdinak dira, talde bereko ikasleak ezberdinak dira (aurrezagutzetan, erabiltzen dituzten estrategietan, motibazioan...), oraingo eta lehengo ikasleak ezberdinak dira –euskara ikasteko motibazioa, duten formazioa, den-

bora librearen erabilera, adina...–. Eta gauza bera gertatzen da hirukiaren beste bi erpinetan ditugun elementuekin –irakaslearekin eta objektuarekin–, horiek ere aldakorak dira, batetik bestera eta denboran zehar ere aldatuz joan dira. Hiru elementu horien dinamikotasunari erantsi behar diogu, gainera, hiruren interakzionatzeko era ezberdinak, egoera batetik bestera eta denboran zehar. Beraz, hiruki didaktikoaren irudi hori lagun dugula, ikusten dugu jarduera didaktiko guztiak oso dinamikoak eta konplexuak direla. Faktore horiek islatzen eta beren dinamikotasuna ikusarazten saiatuko gara.



Hizkuntzen curriculum bateratua: zenbait zertzelada

Komunikazio hau hiru atale-
tan zatiturik aurkeztuko da.
Lehendabiziko atalean Ikaste-
txeko Hizkuntz Curriculuma
bateratzeko dagoen justifikazio
teorikoa aipatuko da. Bigarre-
nean, curriculum bateratuaren
kontzeptualizazioaz arituko
gara. Ondoren, curricula
bateratzeko aurreikusten den
bidea jorratuko da.



Pili SAGASTA

Mondragon Unibertsitateko Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko
irakaslea

Curriculuma bateratzeko aurreikusten den bidea

Lehenik eta behin, ikastetxeko
diagnostikoa egin behar da. Diagnos-
tikoa egiteko hona hemen aztertu
beharrekoak: testuingurua (soziolin-
guistikoa zein soziokulturala), ikas-
leen profila, ikastetxeko antolaketa,
lan egiturak, gelako jarduera eta
abar. Diagnostikoa egin ondoren,
hizkuntz curricula aztertu behar
da diagnostikoarekin bat datorren ala
ez ikusteko. Ondoren, beharrak, ego-
kitzapenak edo aldaketak bideratu
behar dira.

Hizkuntz Curriculuma bate- ratzeko dagoen justifikazio teorikoa

Azken 30 urteotan elebitasun alorre-
an egindako ikerketari esker ikasi dugu
bigarren zein etxeko hizkuntzetan gara-
zen diren hizkuntz gaitasunak erlazio-
natuta daudela. Eleaniztasunaren alorre-
an ere baieztatu da hizkuntza gaitasunen
arteko loturak daudela: hizkuntza bate-
an garatzen diren estrategiak baliaga-
rriak dira beste hizkuntza batean erabil-
tzeko. Hala eta guztiz ere, ikasleak
estrategia horiek martxan jar ditzan,
Hizkuntzako irakasleen planifikazio
bateratua ezinbestekoa da.

Curriculum bateratuaren kontzeptualizazioa

Eleaniztasuna suspertzeak ez du esan
nahi soilik curriculumean bi hizkun-
tza baino gehiago landuko direla. Ele-
aniztasunaren ezaugarri bakarra ez bai-
ta hizkuntzen kopurua. Beraz, oso
garrantzitsua deritzogu eleaniztasuna-
ren ereduaz hitz egiteari.





Sekuentzia Didaktikoak: definizioa eta funtzionamendua

Bi egunetan parte hartuko dut ikastaro honetan. Lehenengoan Sekuentzia Didaktikoaren definizioa eta funtzionamendua azalduko naiz. Bigarren egunean, ostera, adibide praktikoak ikusiko ditugu.

Definizioa

Sekuentzia Didaktikoak tresna didaktikoak dira, hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza sistematikoki antolatzeko modu bat. Sekuentziak dira irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan gradualki eta progresiboki aurreratzen doazen tailerren inguruan egituratzen direlako; betiere ikasleen zailtasunak eta landuko diren generoaren ezaugarriak aintzat hartzen direlarik. Didaktikoak dira zera defendatzen duen marko teoriko batean oinarritzen direlako: hitz egitea eta idaztea ez direla ikasle batzuek dituzten eta beste batzuek ez dituzten dohain ukiezinak. Haatik, tresna komunikatibo eta linguistiko batzuk menperatuz irakatsi eta ikasi behar diren aktibitate linguistikoak dira.

Zatiak

Sekuentzia Didaktikoak hiru fasetan egituratzen dira. Lehenengo fasean kontratu didaktiko bat egiten da ikasleekin, hots, idazketarako proiektu bat egiten da. Hasierako produkzioa egitea proposatzen zaie, eta horrek ikasleen gaitasunak aztertze balioko du. Horrela, horietara egokituz, beraien gaitasun komunikatiboak eta linguistikoak hobetzen lagunduko duten aktibitateen diseinua egin daiteke.

Bigarren fasea hainbat alderdi testual eta komunikatibo lantzen dituzten tailerrez osatzen da. Sekuentziaren azken fasean testuak berrikusi eta azken produkzioa egiten da idatzitakoa berreginez. Modu honetan, tailerretan aparte landutako nozioak eta abileziak praktikan jar daitezke.

Sekuentzien ereduaren analisia

Zenbait Sekuentzia Didaktikoren eredu



Pilar LABAYEN

Iruñeko Irakasle Laguntza Zentroko aholkularia

analisiaren ondoren hausnarketa teorikoa planteatuko da. Sekuentzien baitan egituratutako gelako lanak hizkuntzen didaktikaren ikuspuntuan zer aldaketa ekartzen dituen hausnartuko da honako alderdiak azpimarratuz: irakurketa, idazketa eta ahozko tasuna biltzen dituen zentzuzko aktibitateak planteatzeko beharra; hasierako produkzioak aztertzearen garrantzia geletako aniztasunaren trataera kontuan hartuz; erreferentziazko genero sozialen analisia eta azterketa; nola diseinatu gure ikasleek dakitenari egokitutako ikaskuntza tailerrak; Sekuentzia Didaktikoen barruko ebaluazio formatiboa; eta ahozko eta idatzizko generoen inguruko lanaren garrantzia.

Argudiozko testuen lan esperientzia ikastetxe elebidunetan

Irakasle eta aholkulari bezala lan egiten dut Nafarroan eta orain dela urte batzuk hasi ginen elkarlanean Joaquim Dolz Ginebrako Unibertsitateko irakaslearekin. Urtero etortzen da irakasleen formaziorako ikastaroak eta mintegiak ematera.

Lanaren lehenengo zatian argudiozko bi Sekuentzia Didaktiko itzuli, egokitu eta espe-

rimentatzen ditugu berarekin batera. Lehenengo Sekuentzia Didaktikoa "Konbentzitzeko argudiatu" izenekoa da eta DBHko 1. ziklorako da. Bigarrena iritzi testuen hastapenerako Sekuentzia Didaktikoari buruzko "Nire iritzia idazten dut" da, eta Lehen Hezkuntzako 3. ziklora zuzendua dago.

Komunikazio honetan bi sekuentzia horien egokitzapenari eta itzulpenari buruzko alderdi adierazgarrienak komentatuko ditut. Gure artean argudioaren irakaskuntzan ohiturarik ez zegoelako aukeratu genituen, eta interesgarria iruditzen zitzaigulako zenbait eredu edukitzea hainbat ziklotarako. Gainera, Sekuentzia Didaktikoek gure curriculumeko bi hizkuntza ofizialen trataera integralaren inguruan hainbat aukera interesgarri irekitzen zituztela konturatu ginen.

Sekuentziak itzultzen hasi ginenean argi geratu zen egokitu egin behar zirela. Izan ere, testu errealekin eta Suitzako ikasleen errealitate gertu zeuden komunikazio egoerekin lan egiten hasi ginen, eta beharrezkoa zen gure testuingurura eta ezaugarrietara egokitzea.

Azkenik, "Konbentzitzeko argudiatu" Sekuentzia Didaktikoen ikasleek egindako hasierako eta bukaerako zenbait testu aztertu ditut. Ama hizkuntza euskara duten Nafarroako zonalde euskalduneko ikasleek gaztelaniaz idatzitako testuak dira. Hainbat testuren artean hiru ikaslerenak hautatu ditut Sekuentzia Didaktikoei eta aniztasunaren trataerari buruzko aldi bereko hausnarketa egin ahal izateko; ikasle bat maila ertaineko da (A ikaslea), bestea gaztelaniaz adierazteko zailtasunak dituena (B ikaslea) eta hirugarrena (C ikaslea) heziketa behar bereziak dituena eta gelatik kanpoko laguntza jasotzen duena.

Sekuentzia Didaktikoaren barnean esku-hartze psikopedagogikorako zenbait estrategia

Sekuentzia Didaktikoak eskaintzen digun marko esanguratsuan kokatu ditugu testuaren ulermenarekin eta ekoizpenarekin erlazionatutako estrategiak lantzeko jarduerak. Sekuentzia Didaktikoa lau urratsetan banatu dugu: sarrera, garapena, hausnarketa eta azken elaborazioa, eta urrats bakoitzak prozesuan betetzen duen funtzioen arabera sailkatu ditugu estrategiak eta jarduerak. Dena dela, sailkapen hori malgutasunez erabiliko dugu, eguneroko praktikan sortzen diren aukerak aprobetxatuz.

Sarrera

Urrats honetan oso garrantzitsua da haurrek bereganatzea Sekuentzia Didaktikoaren bukaeran gauzatuko duten eginkizun komunikatiboaren zentzua eta balioa. Horregatik, oso garrantzitsua da azken xedea egoera errealekin lotzea eta azken xedearen definizioarekin erlazionatutako hainbat erabaki haurren esku uztea: hartzailea nor izango den finkatzea, zer informazio edo material osagarri erabiliko dituzten proposatzea...

Oso garrantzitsua da, halaber, eginkizuna gauzatzeko beraien aurrezagutzak aktibatzea eta ezagutzeko beharra sortzea; horretarako, zenbait estrategiaren bidez ezagutzen dutena gogoratu eta jakiteko nahiak kanporatzen lagundu behar diegu



Mariam BILBATUA

Mondragon Unibertsitateko Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko
irakaslea

agerian utz dezaten zer dakiten, zer dakitene egiten, zer zaien atsegin, zer ez zaien atsegin, zer jakin nahi duten...

Urrats honek aukera ematen digu taldeko komunikazioarekin zuzendutako por-

Oso garrantzitsua da, halaber, eginkizunagauzatzeko beraien aurrezagutzak aktibatzea eta ezagutzeko beharra sortzea

taerak garatzeko: galdetzeko, alternatibak proposatzeko, norberaren aukerak justifikatzeko eta defendatzeko...

Garapena

Urrats honetan gara daitezkeen estrategiak hiru helbururen inguruan antolatu ditugu:

A. Ahozko zein idatzizko ulermenarekin erlazionatutako trebetasunak garatzea: informazioa gogoratu, erlazionatu...

B. Ereduen azterketaren bidez ekoiztu behar dituzten testuen berezitasunak ezagutzeko.

C. Ingurunearen ezaguerarekin erlazionatutako edukiak lantzea.

Hausnarketa ekintzak

Azken xedearen ekoizpena egin aurretik, ikasitakoaz hausnartu eta ekoizpena egiteko lagungarri egingo zaizkien tresnak sortu edo aztertuko ditugu haurrekin. Adinaren arabera estrategia desberdinak erabiliko ditugu hausnarketa bideratzeko: euskarri grafikoak, kontrol zerrendak...

Testuaren ekoizpena

Ekoizpena prozesu baten barnean kokatu dugu: zirriborroa idatzi, zirriborroa zuzendu eta azken testua ekoiztu. Prozesuaren une bakoitzean estrategia desberdinak erabiliko ditugu baina helburua beti izango da haurren autonomia garatzea.



Irakaskuntzako praktiken eraldaketa ikaskuntza eraldatzeko”

Bi saio eskainiko ditu Joaquim Dolzek ikastaro honetan. Bata, Ahozko eztabaida: irakaskuntzako praktiken eraldaketa ikaskuntza eraldatzeko . Bestea, Argibide testutik azalpen testura: hitz egin eta idatzi ikasteko. Gelan gauzatutako Kimikako esperientzia baten gogoeta. Aza gorriaren infusioa, kameleoi kimikoa .

Ahozko eztabaida: irakaskuntzako praktiken eraldaketa ikaskuntza eraldatzeko

Izenburu hau daraman ikerketa Christiane Moro eta Antonella Polloekin batera burutu dut.

Duela zenbait urtetik hona (Dolz, Schneuwly, 1998) Ginebrako Unibertsitateko Hizkuntzen Didaktikako taldeak hainbat ikerketa egiten dihardu ahozko genero formal publikoen irakaskuntzaren inguruan: hitzaldiak, elkarrizketak, eztabaidak eta abar. Ikerketa hauek idatzizko generoan eta sekuentzia didaktikoan oinarritutako ahozko espresioaren didaktika bat funtsatu nahi dute.

Araututako eztabaidaren eredu didaktikoa egiteak aukera eman digu Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzako ahozko argudio gaitasunak hobetzera bideratutako hainbat sekuentzia didaktiko egitea eta esperimentatzea.

11 urteko hurrek McDonald's jate-txeen alde eta kontra egindako ezta-



Joaquim DOLZ

Ginebrako Unibertsitateko Psikologia eta Hezkuntzaren Zientzien Fakultateko irakaslea

baidaren transkripzioak eta analisia aztertu ditugu sekuentzia didaktikoa jarraitu aurretik eta ondoren. Horrek idatzizko generoaren irakaskuntzako tresnak (irakasleak bere ikasleekin erabiltzen dituenak) eta ikaskuntzako tresnak (ikasleentzako gaitasunak eraldatzeko laguntzen dutenak) kualitatiboki aztertzeko aukera emango digu. Argudiozko estrategiak garatzen laguntzen duten funtzioak eta unitate linguistikoak bereiztu egingo dira, batzuek zein besteek ikasleentzako argudio gaitasunaren ikasketan eta eraldaketan dauden oztipoak gainditzeko duten eragina aztertzeko.

Argibide testutik azalpen testura: hitz egin eta idatzi ikasteko. Gelan gauzatutako Kimikako

esperientzia baten gogoeta. Aza gorriaren infusioa, kameleoi kimikoa

Ginebrako Unibertsitateko Zientzien Fakultateko Kimika Organikoko laguntzaile Yves Allembach-ekin batera egindako ikerketa da honako hau.

Kimika eta Espresio Idatzia ikasgaien hastapenetan burututako diziplinarteko lan bat da hau. Lehen Hezkuntzako haur talde batek eta heldu talde batek esperientzia kimiko bat burutu dute aldi berean. Esperientzia horretan aza gorriaren hostoen infusioa koloredun adierazle bezala erabiltzen da. Bere propietatea azidoekin (limoi zukua, adibidez) eta baseekin (garbigailurako xaboiaren disoluzioa, esaterako) nahastean kolorez aldatzen dela da.

Gelan burututako esperientziak argibideen plan bat idazteaz gain, gertatutako kolore aldaketa esplikatzen testu bat idaztea eskatzen du. Hurrek eta helduek idatzitako azalpenezko testuen arteko konparaketak eta analisiak zera erakutsiko digu: Lehen eta Bigarren Hezkuntzan lantzea merezi duten generoaren dimentsioak.

Esperimentuan erabilitako sekuentzia didaktikoaren elementuak ikerketaren behin-behineko emaitzak ikusita aurkeztu eta eztabaidatu dira.

Laburpena: nola irakasten dugu irakasleok? Zer ikasten dute ikasleek?

Laburpena lantzeko bi galdera hauen inguruan egin dugun azterketa eta hausnarketa hartu ditugu ardatz gure komunikazioa antolatzeko. Hasteko, irakasteko ikuspegiak alderatuko ditugu; ondoren, bi testu mota lantzeko erabilitako Sekuentzia Didaktikoa azalduko dugu; eta, bukatzeko, ikasleen ezagutzaren prozesuaz hausnarketa egingo dugu.



Mariam BILBATUA
Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea



Lourdes ETXEBERRIA
Aretxabaletako Kurtzeberri eskolako irakaslea

Laburpena lantzeko bi ikuspegi bereiz daitezke: laburpena ariketa deskontestualizatu gisa lantzen duena eta laburpena testuinguru komunikatiboan kokatzen duena.

Lehenak laburpena ikasleen ulermenaren neurtzeko tresna gisa erabiltzen du edota helburu funtzionalik gabeko trebetasun gisa. Ondorioz, ez ditu kontuan hartzen laburpenaren parametro komunikatiboak: zertara-

ko idatziko den, norentzat, zeri buruz...

Bigarren ikuspegiak, ostera, parametro horiek abiapuntutzat hartzen ditu, ez baita gauza bera liburu baten irakurleak erakartzeko, informazioaren bilketa errazteko, informazioa elkartrukatzeko edota norberaren oroimena ziurtatzeko laburtzea.

Bigarren ikuspegiaren oinarritu ditugun bi Sekuentzia Didaktikoak lantzerakoan, ondoko urratsak izan ditugu aintzat:

- Laburtuko den testuaren egoera komunikatiboa aztertzea, baita laburpenaren ondorioz sortuko dena ere, garrantzitsua baita egoera desberdi-

nak direla kontuan izatea.

- Haurrek laburtutako testuaren egoera komunikatiboa irudika dezaten jarduerak planifikatzea.

- Jarduera horien bidez ikasleek laburpenaren inguruan dituzten ideiak eta ezagutzak behatzea eta gure esku-hartzea egokitzea.

Sekuentzietan landu ditugun testuak testu narratiboa eta azalpeneko dira eta haurren adina 9-10 eta 11-12 urte.





Sekuentzia Didaktiko baten adibidea

Irakaslearentzat garrantzitsua da bere esku-hartze didaktikoari buruzko gogoeta egitea. Hori dela-eta, kanpoko laguntza dela medio, nire ikasleekin erabili dudun Sekuentzia Didaktiko baten hausnarketa egiteko, aukera izan dut, .

Horretarako, aukeratu genuen testu mota informatiboa zen, eta horren inguruan Sekuentzia Didaktikoa eraiki dugu.

Dakizueenez, Sekuentzia Didaktikoaren bidez antolatzen da testuaren lan-ta sistematikoa. Sekuentzia Didaktikoaren bukaeran, ikasleek azken xedea burutuko dute, gure kasuan "Herriko zerbitzuen gida".

Edukiak zehazteko hainbat alderdi ezagutu behar genituen: testu informatiboaren ezaugarriak, ikasleen aurrezagutzak (testu horri buruz, zerbitzu gidari buruz, testu horren antolaketari eta testuratzeari buruz eta abar). Ikasleen aurrezagutzak jakiteko, ikasleek idatzitako aurretestuaz baliatu gara. Hauek dira ikasleek landu beharrekoak iruditu zaizkigun alderdiak, eta beraz, bakoitzarekin tailer bat antolatu dugu: gaiak eta azpigaiak ezberdintzea eta ordenatzea (ideien ordena, parrafoa, puntu eta aparte, maiuskulak), izenburua eta bere garrantzia, testuaren hasiera, ideien arteko loturak (izen ordezkapenak), gai berrien aurkezpena eta abar. Tailer horiek guztiak elkarren artean erlazionaturik daude eta guztiak azken xedea ongi egiteko bideratuta daude, alegia,



Lourdes RODRIGUEZ

Urretxuko Gainzuri eskola publikoko irakaslea

testu informatiboaren ekoizpena hobetzera bideratuta. Hizkuntza modu horretara landuz, hizkuntz erabilera errealean aritzeko aukera ematen zaio ikasleari.

"Aukeratu genuen testu mota informatiboa zen, eta horren inguruan Sekuentzia Didaktikoa eraiki dugu"



Hizkuntza eta curriculumeko beste arloak

Izenburu honen pean hizkuntzaren erabilerak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu, hizkuntz eskoletan zein curriculumeko beste arlo guztietan hizkuntza baita, ahoz edo idatziz, elkarren artean komunikatzeko eta ideiak azaltzeko erabiltzen dugun bitartekorik garrantzitsuena.

Hizkuntzaren irakaskuntza, baina, gure kasuan euskararena, izen bereko ikasgaira mugatzen da gehienetan; beharrak, ordea, esparru hori gaintitu eta ohikoak diren beste zereginetan ere antzematen dira.

Eskola eta hizkuntza aktibitatearen inguruan hainbat egilek egin dituzten hausnarketa batzuk gogora ekarri ondoren, 12 eta 13 urte bitarteko ikas-



Ines Mª GARCIA
EHUko irakaslea

leek euskaraz idatzitako azalpenen azterketari ekingo diogu, ikastetxetan gaztetxoek sarritan erabili behar izaten baitituzte tankera horretako idazlanak, besteak beste, azterketetan.

Horretarako Natur Zientzietako eskola batean ekoiztutako testu idatziak bildu ditugu. Dituzten ezaugarri

orokorrak behatu ondoren, testuan zehar informazio unitate berriak nola sartzen diren eta jarraian, gaiaren garapenak aurrera egin dezan, aurretik emandako informazio horiek nola berreskuratzen diren ikusiko dugu. Kontua da, azken finean, testuaren izen-kohesioan eragiten duten adierazpen anaforikoen erabilera aztertzea, hauek ziurtatzen baitute informazioaren jarraikortasuna, eta ezin dugu ahaztu alderdi honek azalpenetan duen garrantzia.

Ondorioetan zera ikusiko dugu: beraien azalpena emateko orduan ikasleak identitatearen lotura duten elementuetan oinarritzen direla. Izan ere, errepikapenaren bitartez ziurtatzen dute testuaren izen-kohesioa, eta horrek eragina du beraien idazlanek azkenean izango duten itxuran.





Zer ikasi dute ikasleek Sekuentzia Didaktikoarekin? Ikasleen aurretestuak eta ondotestuak



Testua idaztea oso jarduera konplexua da, faktore asko eduki behar dira kontuan eta guztiak aldi berean. Horregatik, Hizkuntza irakasleontzat zaila izaten da jakitea ikasleak zer dakien egiten hizkuntzarekin. Alabaina, irakasleak informazio hori beharrezkoa du ikasleari egokituko zaion esku-hartze didaktikoa martxan jartzeko.

Bestalde, badakigu ikasle bakoitzaren aurrerapenak ebaluatzeko, esku-hartze didaktikoaren aurretik dakiena eta ondoren egiten duena alderatu egin behar ditugula; horrela eginez, ikasi duena ebaluatuko dugu. Nola jakin daiteke, beraz, ikasleak zer dakien eta zer ez ikaskuntza saioa baino lehen?

Hizkuntza idatziaz ari garela, aurretetua ekoiztea proposatzen dugu horretarako. Ikasleak ikaskuntza saioen aurretik ekoiztuko duen testua da aurretetua. Ekoizpen hori aztertu ondoren, jakin daiteke ikasleak zein hutsune dituen eta zer-nolako edukia landu behar diren Sekuentzia Didaktikoan, ikasleek beren ekoizpenak hobetzatzen.

Aurkezten dugun lan honetan, DBHko 3. mailako haurrek ekoiztutako aurretetua eta ondotetua alderatu ditugu, jakiteko ikasleek zer ikasi duten Sekuentzia Didaktikoan. Ekoiztutako testuetan "herriko zerbitzuen" inguruko informazioa azaltzen da (kiroldegia, suhiltzaileak, osasun



Matilde SAINZ

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea

zentroa...). Testu informatiboak direla esango dugu.

Aurretetua eta ondotetua alderatzeko, izaera ezberdineko bi aldagai izan ditugu kontuan: ikasleen maila eta testuaren egitura. Bi alderdi horiek aintzat harturik, hona hemen erabili dugun metodologia. Testuak lau multzotan sailkatu ditugu (A, B, C eta D); A multzoan eredu sozialetik gertuen dauden testuak kokatu ditugu eta D multzoan, aldiz, eredu sozialetik urrunen daudenak. Hona hemen horretarako kontuan izan ditugun lau irizpideak: 1) izenburua agertzen da eta bertan testuaren gaiari buruzko informazio osoa ematen da; 2) testuaren hasieran gai aurkezten da; 3) azaltzen duen zerbitzua lekutu egiten da (non dagoen esaten da); 4) testuak badu sarrera bat.



Ines GARCIA

EHUko irakaslea

Sailkatze lan hori ondoren, beste zenbait ezaugarri ere aztertu ditugu ikasleko ekoizpenetan: testuan azaltzen den informazio mota, testuaren antolaketa eta puntuazioaren erabilera. Ezaugarri horiek guztiek lagundu digute testuaren arteko ezberdintasunak nabarmentzen, eta, halaber, ikasle bakoitzak ikaskuntzaren ondoren ikasi duena zehazten.

Lan honek adieraziko digun bezala, proposatzen dugun metodologia eskuratuz gero, gai izango gara ikasleko ekoizpenak modu objektiboan ebaluatzeko; halaber, esku-hartze didaktikoari esker, nabarmen geldituko dira bai ikasleak egin dituen aurrerapenak eta baita oraindik egiteko falta zaizkion ikaskuntzak ere.

Literatura eta haurren mundua

Lekua: **Pedagogia Fakultatean, 0.2 gelan**

Uztailak 3	Uztailak 4	Uztailak 5
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa</p> <p>9:00 Sarrera ekitaldia</p> <p>9:30 - Narratiba haur literaturan.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikuspuntu historikoa hasierako urteetatik gaur egun arte. - Gaur egungo egoera Euskal Herrian: <ul style="list-style-type: none"> - Korrante eta idazle garrantzitsuenak. - Liburu adierazgarriak. - Ahozko narratiba. - Euskal ipuin tradizionalak: ezaugarriak, adibideak. <p>* Xabier Etxaniz. EHUko irakaslea. Idazlea eta Haur eta Gazte literaturari buruzko ikerketa lan batzuk egindakoa.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - "Hiru belarritan iragan hitz isil... orotan laster dabila".</p> <p>Hitzaldi honen ideia nagusia ahozko transmisioa izango da:</p> <p>* Arlo teorikoa: "Etxeko" literaturaren inguruko azalpen teorikoa eta etxetik eskolarako trasbasea. Gai hauek jorratuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ahokorapiloak. - Igarkizunak. - Hitz jokoak. - Abestitxoak. - Esaera zaharrak. <p>* Arlo praktikoa: "Axa mixa zilarra" liburuaren inguruko eta igarkizunak eskolan nola erabili jakiteko saio praktikoa.</p> <p>* J.M. Olaizola "Txiliku". Idazlea eta ikasliburu egile.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Literaturaren lanketa eta erabilera ikuspegi eraikitzaile batetik.</p> <p>* Arlo teorikoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Helburuak. - Ipuin itxura duen guztia ipuina al da? - Zer dago ipuin batean? Ezaugarriak. - Irakasleen eginkizuna. - Baliabideak. <p>* Arlo praktikoa: gelan buru tutako bi jardueren azalpena:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Haur Hezkuntza: "Testu literario baten irakurketak eta berridazketa". - Lehen Hezkuntza: "Testu literarioen ekoizpenaren prozesua: borradoreak". <p>* Lourdes Muñoz. Errenteriako PATeko aholkularia.</p> <p>* Begoña Olaskoaga. Oiartzungo Elizalde ikastetxeko irakaslea.</p> <p>* Elena Laiz. Zizurkilgo San Millan ikastetxeko irakaslea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Euskal haur eta gazte literatura gaur



Haurrentzako liburuak ez dira oso berriak gure artean; duela bi mende argitaratu ziren lehenbizikoak. Baina helburu estetikoak duten haurrentzako liburuak, horiek 1960ko hamarkadan hasi ziren argitaratzen euskaraz.

M. J. Minaberrik eginiko liburuak (*Itchulingo anderea...* 1963, eta *Xoria kantari*, 1965) jotzen genituen euskal haur literaturaren hasierako liburutzat (Etxaniz, 1997); hots, irakaspen helburuen gainetik entretenitzea zuten liburu horiek. Harrezkero milaka liburu argitaratu dira euskaraz haur eta gazteentzat.

Gordailu eta Iker taldeek ekindako bidetik, euskal irakurle gazteek sortutako eta itzulitako hainbat eta hainbat liburu daukate, batez ere 80ko hamarkadan hasitako oinarritzko bilduma batzuetatik (Sor, Itzul, Auskalo, Perakax...) eta Erein eta Elkar argitaletxeek bultzatuta. Horrela, esan dezakegu azken hogeitortan euskararen unibertsoa, euskararen mundua, euskararen egoera, asko aldatu den bezala, aldaketa nabarmena izan duela gure haur eta gazte literaturak. Baina aldaketa horiek guztiek gogoetara eraman behar gaituzte; zer, nola, zergatik argitaratzen da?

Haur eta gazte literaturak aldaketa handiak izan ditu, gizartean gero eta garrantzi handiagoa du, unibertsitateren ere bere esparrua hartzen ari da, kritikagintzan ere bere txokotxoia du; ale-



Xabier ETXANIZ

EHUko irakaslea eta idazlea

gia, literaturaren sisteman sartzen ari da. Hala ere, heziketarekin erlazionatzen da, heziketaren menpean jartzen da; literatur aditu eta ikerlari askorentzat, baita komunikabide ugariarentzat, haur eta gazte literatura ikustezi-na da.

Horra hor gaur egungo egoeraren kontraesana, eta alde horretatik, interesgarria izango litzateke nondik gatozen eta zer garen (literatur ikuspuntu batetik) aztertzea.

1803an idatzi zen euskaraz lehen liburu haurrentzat, Aguirre Asteasu-koak idatzitako katexima bat. Geroago etorri ziren liburu didaktikoak (alegiak, gehien bat) eta haur eta gazteei idatzitako literatura (*Pernando Amezketarra*, *Abarrak*, O. Wilderen ipuinak eta abar). Horiekin batera herri ipuinak bildu eta hainbat lan argitaratu ziren (Barbier, M. Arizti...). Egoera horretan geunden XX. mendearen hasierako hamarkadetan; eta egoera horren ondorioa da haurrentzat eginiko lehen poesia liburu (*Haur elhe hau-*

rrentzat), Oxobik 1944an egina. Baina Francoren diktadurak eta Iparraldeko egoerak eragina izan zuten hurrengo hamarkadetako basamortu egoeran. Oasis txiki eta preziatu batzuk izan zituen basamortu luze horren ondoren etorri da oraingo egoera paregabe eta aberatsa; euskal literaturak, euskal haur eta gazte literaturak inoiz ezagutu ez duen bezalako egoera aparta.

Gaur egun literatura tradizionala, edo herri ipuinen ingurukoaren ondoren, gizarte arazoak, norberaren barne kezak edo gai sozialak ukitzen dituzten lanak dauzkagu; testu lirikoaren ondoren narratiba zuzena eta bizia aurki dezakegu; haur txikientzako jolas eta irakurri aurreko liburuaren alboan gazteen kezak eta

hizkera lantzen dituzten liburuak ditugu. Hots, arestian bizi izandako basamortua oihan bilakatzeko bidean gaude... neurri batean, gabeziak ere egon badaudelako gure artean (antzerkia eta poesiaren presentzia, haur txikientzako irudi liburuak edo aldizkari-gintza, bakar batzuk aipatzearren). Hala ere, baikorrak izateko arrazoiak ditugu; gure idazle eta ilustratzaileek Euskal Herritik kanpora duten oihartzuna eta harrera ikustea besterik ez dago. Gaur egun 300 bat liburu argitaratzen dira urtero haur eta gazteentzat, horietako asko berrargitalpenak, gehiago itzulpenak, baina urtero-urtero 40-50 bat liburu berri plazaratzen ditugu euskaraz mundura, horietako batzuek oso harrera ona dutelarik.

Hiru belarritan iragan hitz isila orotan laster dabila...

Horixe da hik hasik udako ekitaldietarako eskatu eta Literatura eta haurren mundua ikastaroaren barruan jarritako nire hitzaldiaren (edo berriketaldia-
ren) izenburua.

Esaldi horrek badu, alde batetik, gaiztakeriaren kutsua, maliziaren ukitua, eta alderdi horretatik ulertzen da, gainera, gehienetan. Alegia, ez dagoe la ezkutuko hitza pertsona gehiegiri esaterik, ez badugu nahi sekretua uste genuena edonora zabaltzea; hiru belarriak entzuten badute ezkutuko hitz hori, laster baino lehenago ibiliko dela ahoz aho eta belarriz belarri.

Baina esaldia ikuspegi baikor eta positibotik ere har genezake, hau da, guk zabaldu nahi dugun hori (ahozko literatura deitzen dugun hori izan edota hizkuntzako trebetasunerako tresneria) aise joango dela ahoz aho eta belarriz belarri hiru belarritara iristea lortzen badugu.

Hortxe baitugu kaka, beste kaka askoren artean, hortxe gu guztion kezketako bat : nola lortu hizkuntzaren altxorra ahotik belarrira zabaltzea.

Lehen, beste garai eta gizarte batean, ahotik belarrirako transmisioak bazi-tuen bere iturriak. Artazuritzeak, lino-lanak, dandak eta gainerako auzolanak... aipatzen dira oraindik ere, eta egia zen ahotik belarrirako transmisioak garrantzi izugarria zuela eskola



J. M. OLAIZOLA
"TXILIKU"

Idazlea eta ikasliburu egilea

gutxi, lan asko eta denbora ugariko gizarte iragan hartan. Amonak, amak, arrebek, ahizpek eta, batzuetan, anaiek, aitak edo aitonak ipuin, kondaira eta bestelako istorioak kontatzeko denbora nahikoa izaten zuten. Orduan denborak ez baitzuen gaur egun balio duen adina balio, astia franko izaten baitzen, eta edozertarako beta har baitzitekeen...

Baina alferrik da lehengo denboren nostalgia galduta ibiltzea. Nekazaritzan oinarritutako gizarte amaitu da ia erabat (bazter ezkuturen batean ez bada behintzat, eta hori ez da, inola ere, aztertu behar dugun gaiaren muina). Ahaztu zaigu zer diren artazuritzeak, lino-lanak, dandak eta auzolanak; gaur egungo amonek, amek eta, askoz gutxiago, gainerakoek, ez dute (ez dugu) istorio, kondaira eta ipuinik

kontatzen. Ez dute (ez dugu) astirik! (Baina astia, beta edo nahi duzuen ez omen da inoiz edukitzen, beti hartu egin behar omen da).

Eta irakasleek?

Kontatzen ote dituzte istorioak irakasleek?

Honaino irakurri duen irakasleari zintzurreraino etorriko zitzaien, seguru aski, halako estuasun bat, nolabaiteko ezinegona... Eta ezpainetara galdara hau:

—Hau ere guk egin beharreko zerbait ote da?

Ahotik belarrirako isuri horretan zer den bakoitzak egin dezakeena, zertarako balio dezakeen, nola egin daitekeen, eta beste hainbat gauza argitzeko asmoa du uztaileko ekitaldi horrek.

Benetan gauza gehiegixko izan daiteke egun bakar batean, zirt-zart, konpontzeko, eta, seguru asko, askoz gutxiagorekin konformatu beharko dugu, baina, arazoa zein den (arazoa baldin bada, behintzat) eta nondik helgeniezaiokkeen ikusten hasteko aukera ederra izan daiteke.

Kontuak kontu, egindakoarekin pozik itzultzeko arrazoi bat beti izango dugu: elkarri ahotik belarrira hainbat kontu esateko, eta beste hainbat entzuteko, aukera izan dugula. Eta badakigu *hiru belarritan iragan hitz isila, orotan laster dabila...*



Literaturaren lanketa eta erabilera ikuspegi eraikitzaile batetik



Ipuinetatik eta haur folkloretik abiatuz, hurrek ezagupen asko bereganatzen dituzte idaztiei buruz.

Hizkuntza idatziaz ikasteko ariketarik eraginkorrena haurtzarotan ipuinak entzun izana dela dio Wellsek bere ikerketan (86). Esperientzia horren bidez haurra hizkuntzaren ahalmen simbolikoa deskubritzen hasten da, eta hitzaren bidez mundu posible edo imajinariora sortzeko aukera izaten du.

Kontakizunak eraikitzen eta ulertzen irakastea eginkizun nagusia da irakaskuntzan; ikasleak narrazio testuak ahoz nahiz idatziz ekoizteko eta interpretatzeko gaitasuna garatzea da, beraz, helburuetariko bat.

Bestalde, ipuinak haurren barruko munduarekin konektatzeko ahalmena duenez, bere bizipen eta sentsazioak ulertzeko tresnak ematea garrantzizko helburu bilakatzen da. Eta nola ez, haurren emozioekin zubi bat egitea irakurle bihurtzeko bidean jarriz, eta literaturaz gozatzea.

Ipuin itxura duten liburu guztiak ipuinak al dira? Galdera hau soberan dagoela badirudi ere, eskolan, Haur Hezkuntzan batez ere, izen orokor hori ematen zaio ia edozein libururi.

Ipuina izateko, ordea, baldintza jakin batzuk bete behar ditu testu horrek: egitura kanonikoa, asmatutako gertaerak eta pertsonaiak, berriazko lexikoa...



Lourdes MUÑOZ
Erreterriako PATeko aholkularia

Ipuina eta ez-ipuina bereiztearen arazoia zera da: ikasleei konturaztea euskarria ez dela testuari bere nortasuna ematen diona, eta testu mota bakoitzak ezaugarri propioak dituela. Ezagutza hau beharrezkoa da edozein testu interpretatu edo ekoiztu ahal izateko.

Gaur egun badakigu haurrak bere ezagupenak eraikitzen dituela, baina ezagupen horiek ez dira erabat garatuko ez badu elkarreraginean lan egiten bera bezala eraikitzen ari diren kideekin eta, batez ere, ez badago ikasle eta ezagupenen arteko bitartekari den irakaslerik.

Beraz, irakaslearen eginkizunak garrantzi handia du hainbat alderditan: haurren ezagupenak kontuan harturik jarduerak antolatu eta aurrera eramateko garaian, ikasleen arteko elkarreragina sustatzean, baliabideak eta materialak aukeratzean, hausnarketa uneak bultzatu eta denen ekarpena ahalbideratzean, prozesua ebaluatu eta hobekuntzak egiteko momentuan...



Begoña OLASKOAGA
Oiarzungo Elizalde ikastetxeko irakaslea



Elena LAIZ
Zizurkingo San Millan ikastetxeko irakaslea

Hasieran esan bezala, hurrek gertuko dute ipuinen mundua eta ezagupen ugari dute ikastetxean lanketa honetan hasi baino lehen; beraz, ezagutza horretaz baliatzen gara.

Orain arte esandakoa kontuan hartuta, ipuina lantzeko jarduerak planifikatzen ditugu Haur Hezkuntzako lehen ikasturtetik aurrera. Adibide gisa, sekuentzia didaktiko batzuk azalduko ditugu.

Literatur txokoa:

Lizardi, Mirande eta Sarrionandia

Koordinatzailea: Xabier Mendiguren Elizegi

Lekua: **Pedagogia Fakultatean, 2.3 gelan**

Uztailak 3	Uztailak 4	Uztailak 5
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa</p> <p>9:00 Sarrera ekitaldia</p> <p>9:30 - XABIER LIZARDI.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Testuingurua eta biografia - Obra eta ezaugarriak: <ul style="list-style-type: none"> - Ipuinak (ipuin taxuera). - Antzerkiak (antzerki lan taxuera). - Kazetari-lanak (artikuluen tematika eta ezaugarriak). - Olerkiak (tematika, estiloa, baliapideak eta ezaugarri formalak). - Iruzkina: <ul style="list-style-type: none"> - Prosazko testuen iruzkinak. - Olerki batzuen iruzkina. <p>* Lurdes Otaegi Imaz. Euskal Filologian lizentziatua.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - JON MIRANDE.</p> <p>Zenbait testu poetiko zein narratiboren bidez, Jon Miranderen obra literarioaren zenbait atal ezagutzera ematea dut xede.</p> <p>Halaber, ikastaroko partaideak irakas munduko profesionalak izango garenez gero, helburu erantsia litzateke, euskal literatura garaikidearen programa baten barruan, bai idazle partarraren garrantzia azpimarratzea, bai ikasgai honi eman beharreko lekua, denbora zein irakasbideen nolakoak azaltzea. Esan bezala, nagusiki, egilearen bi alderdi izango dira aztergai: batean, bere poesiaren eragina eta nondik-norakoak; bestean, bere prosarenak.</p> <p>Hartara, goizaren bi zatietan, eguarte eta eguerdian, banatuko genituzke bi aztergaiok.</p> <p>* Edorta Matauko Elorza. Euskara eta Euskal Literatura irakaslea IRALEko Donostiako euskaltegian.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - JOSEBA SARRIONANDIA.</p> <p>Joseba Sarrionandia Uribelarrearen obrak ikasgelan izan dezakeen erabilera mintzatuko da Aranbarri. Horretarako Sarrionandiaren obraren aberastasunaz baliatuko da, alegia, egileak landu dituen genero guztiak ukituko dira. Horretarako ipuinak eta poesiak erabiliko dira batez ere, baina saio laburrak inolaz ere ahaztu gabe. Bestalde, oso kontuan hartuko da gelan izan dezakeen erakarpem efektuagatik, Sarrionandiaren poemaz edota kantu letraz osaturiko zenbait abesti.</p> <p>Ez da Sarrionandiaren obra egun bakar batean azaltzekoa. Are gehiago bost ordu ez digute honen lan guztia ondo aztertzeko paradarik ematen, baina, hala ere, solasaldiaren helburua idazlearen alderdi tematiko eta baliabide nagusietara hurbiltzea da. Horrez gain, ikasgelan erabilgarri gerta dakigukeen antologia proposamen bat egingo da. Horretarako, ezinbesteko ikusten da parte-hartzaileek irakurle moduan izan duten esperientziak hitz egitea, horrela, amaieran, unitate didaktiko bat zirriboratzera hel gaitezen.</p> <p>Saio hasieran idazlearen zein idazleaz dagoen bibliografia nagusia eta sarean dagoen informazioa eskainiko da, material lagungarri gerta dakigun.</p> <p>* Iñigo Aranbarri. Euskara eta Euskal Literaturako irakaslea da Iurretako Institutuan.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Jose Maria Agirre “Xabier Lizardi”

Testuingurua eta biografia

Euskal Herrian XIX. mende bukaeratik XX. mendeko lehen herenera arteko giro politiko kulturala Pizkundea deiturako mugimenduak markaturiko garaia da, oro har. Beraz, Jose Maria Agirre Xabier Lizardi ren biografia pertsonala azalduz batera, Pizkundearen testuinguru horretan izan zuen proiektzioa, eta une jakin hark bere idazlanean izandako eragina agerian jartzea izango da sarrerako atal honen helburua.

Obra eta ezaugarriak

Lizardik hainbat literatur genero landu zituen. Osperik handiena ekarri ziotenak olerkigintza eta kazetaritza izan ziren, baina ipuingintza eta antzerkigintza ere saiatu zituen lehenik. Bere garaiak kazetaritza jardunak jende askorengana eramanez Lizardi idazlearen pentsamendua eta prosa atsegina, eta oso ezaguna eta eraginkorra izan zen bere artikuluen polemiko eta argien ondorioz. Bestalde, bere olerkigintza arloko emaitzak euskal lirikaren gailurtzat aipatzen dituzte kritikoeak.

Obra osoaren aurkezpena:

- **Ipuinak:** Ipuinak Lizardi gaztearen lehen lanak dira, izaera alegorikoa dute gehienbat. Taxu erromantikoa dute eta euskararen eta maitasunaren galeraren ingurukoak dira interesgarrienak, geroagoko zenbait poemekin



Lurdes OTAEGI

Euskal Filologian lizentziatua

duten harremanarengatik.

- **Antzerkiak:** Antzerkigintzaren arloan hiru obra argitaratu soilik ezagutzen dira. Lehenengoa haur ipuin baten egokitzapena da, *Laño ta Izar* izenez errepresentatu zena 1930an. Beste bi antzerki lan luze argitaratu ziren Lizardiren eskutik: *Bi aizpak* eta *Ezkondutik ezin zitekeen mutilla*. Biak ohituren komedia deitzen den teatro motaren sailekoak dira eta umorearen bidez helarazten dute gizarte kritika. Ikusleei familia ohituren inguruko hausnarketa eginarazten diote.

- **Kazetari lanak:** Artikulugintza izan zen Lizardik gehienik landu zuen generoa olerkigintzarekin batera. Izan ere, egunkarietako artikuluen bidez ezagutzera ematen eta bultzatzen baitzituen *Euskaltzaleak*en bidez sustatu nahi zituen kanpainak eta ekintzak. Garaiko egunkari, astekari eta aldizkarietan argitaratu ziren Lizardiren artikulak, eta bere garaiak oso irakurriak eta oihartzun handikoak izan ziren. Bera hil ondoren bildu eta *Itz-lauz*

izenez argitaratu ziren euskarazko gehienak.

- **Olerkiak:** Lizardiren olerkigintzaren emaitza 54 poemek soilik osatzen dute, baina euskal lirika modernoaren gailurtzat izendatua izateko adinako poesia sorta izan zen, halere. Poema liburu bakarra argitaratu zuen *Biotz-Begietan* izenburuz 1932an. Bertan argitaratzeko hautatu zituen aro ezberdinetan landutako bere olerkietako batzuk, eta beste berri batzuk ondu zituen liburuari halako egitura adierazgarria eta esanguratsua eman arte.

Lizardiren obraren berri zabala eman ondoren, zenbait prosazko testuren eta olerki adierazgarrienen iruzkina egingo da.



Jon Mirande

Zenbait testu poetiko zein narratiboren bidez, Jon Miranderen obra literarioaren zenbait atal ezagutzera ematea dut xede. Halaber, ikastaroko partaideak irakas-munduko profesionalak izango garenz gero, helburu erantsia litzateke, euskal literatura garaikidearen programa baten barruan, bai idazle paristarraren garrantzia azpimarratzea, bai ikasgai honi eman beharreko lekua, denbora zein irakasbideen nola-koak azaltzea.

Esan bezala, nagusiki, egilearen bi alderdi izango dira aztergai: batean, bere poesiaren eragina eta nondik-norakoak; bestean, bere prosarenak. Hartara, goizaren bi zatietan, eguarte eta eguerdian, banatuko genituzke bi aztergaiok.

Obra poetikoa

Sei poema aukeratu ditut: Koldo Izagirre eta Xabier Mendigurenek gertatu Euskal Literaturaren Antologian agertzen diren bostak (aukeraketaren egokia eta testuei buruzko argibideen ugaria lagungarri) eta seigarrena, *Orziren Ttunttuna*, giza existentziaren metaforarik beteenetakoa euskal literaturan.

Poema bakoitzaren irakurketa ozena egin ondoren, alde formalak izango ditugu hizpide, maila foniko, morfosintaktiko eta semantikoan, baita egi-



Edorta MATAUKO


Euskara eta Euskal Literatura irakaslea
IRALEko Donostiako euskaltegian

leak baliabide lirikoaren bidez erakutsitako inkonformismoa, ezinegona, sorterri-mina, ironia, misoginia, heterodoxia, sentsualitatea eta unibertso ikuskera ere, hitz batez, bere arimaren mamia.

Hitz lauuko lanak

Hiru irakurgaik osatuko dute atal hau: *Eresi Kantari*, *Gauaz Parke Batean* eta *Haur Besoetakoa* eleberriaren hasierako bost orrialdeek. Lehenengo zatian bezala, bigarren honetan ere ozen irakurriko dugu, osorik izan ezean, bai behinik behin zenbait parrafo. Jarraian, hala ipuin jostalarietan nola eleberriaren atmosfera dramatikoagoan barrena, baliabide estilistikoak komentatuko ditugu, euskal ipuingintza moderno eta kreatiboan mugarri diren lanon goi mailako prosa agerian utziz.

Amaitzeko, eta osagarri bibliografiko gisa, Miranderen obra osoaz gain, haren inguruko liburu eta erreferentziak aurkeztuko dira.





Joseba Sarrionandia



Joseba Sarrionandia Uribelaren obrak ikasgelan izan dezakeen erabilera mintzatuko naiz. Horretarako, Sarrionandiaren obrak eskaintzen duen aberastasunaz baliatuko gara, alegia, batzuek gehiago, besteak gutxiago, iurretarrak urte hauetan guztietan landu dituen generoak oro ukituko dira bost orduko saioan.

Ez da erraza Sarrionandiaren lana bere osotasunean ikustea, izan ere, ikaragarri zabala baita honen obra (itzulpenak barne, hogeitik gora dira bere sinadura daramaten liburuak). Beraz, aukeratzeko hasita, ipuinen eta poemen aldeko hautua egin da batez ere, bertan jasotzen direlako, neurri handi batean, egilearen mundua ulertzeko zain nagusiak.

Hala dago pentsatua lan saioa: gutxi gorabehera erdia poesiari eskaintzea eta beste erdia ipuingintzari. Halaber, eta material lagungarri gisa, oso kontuan izango dira idazlearen saio laburrak eta aforismoak. Egilea hobeto ulertzeko eskaintzen duten balioarengatik, sarri erabiliko ditugu.

Bestalde, eta ikasle gazteen artean izan dezakeen iman efektuagatik, Sarrionandiaren poemaz edota kantu letraz osaturiko zenbait abesti ere ikusiko dira. Musikan, material erabilgarria, badago (Ruper Ordorika, Mikel Laboa, Fermin Muguruza, Oskorri...). Material honen berri ematea eta kantuok eskaintzen dituzten aukerak erakustea da saioaren xedeetako bat.



Iñigo ARANBARRI

Euskara eta Euskal Literaturako irakaslea
Iurretako Institutuan eta idazlea

Ez da Sarrionandiaren obra egun bakar batean azaltzekoa. Are gehiago, bost ordu ez digute honen lan guztia ondo aztertzeko paradarik ematen. Hala ere, solasaldiaren helburua idazlearen alderdi tematiko eta baliabide nagusietara hurbiltzea denez, uste dugu saioaren amaieran denon artean Sarrionandiaren irakurketa baterako proposamenak ateratzeko moduan izango garela.

Esan bezala, aberatsa da oso Sarrionandiaren mundua. Inoiz, denbora eta espazio ezagunetik haratago zabaltzen da. Majikoa da. Inoiz, egilea eta pertsona oso bateratuta agertzen diren amarauna da. Gordina da.

Majikotasuna eta errealitatea; idazlea eta pertsona, ikasleei transmititzeko mundu oso bat eskaintzen digu Joseba Sarrionandiaren literatur obrak.

Beraz, badago asmoa ikasgelan erabilgarri gerta dakigukeen antologia proposamen bat ere egiteko. Horretarako, interesgarri ikusten da parte-hartzaileek irakurle moduan izan duten esperientziaz hitz egitea, horrela, amaieran, eta esan bezala, unitate didaktiko bat zirriborrazera hel gaitezen.

Ikastaroan parte hartzeko izena eman duten guztiei idazlearen zein idazleaz dagoen bibliografia nagusia eta sarean dagoen informazioa eskainiko zaie material lagungarri gisa, saioa aberatsago gerta dakigun.



Idazkera “txarra”?

Ez, eskerrik asko

Idazker a “txarra”?
Ez, eskerrik asko

Lekua: **Pedagogia Fakultatean, 2.5 gelan**

Uztailak 3	Uztailak 4	Uztailak 5
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa</p> <p>9:00 Sarrera ekitaldia</p> <p>9:30 - Eroso idazteko aurrebaldintzak ezagutzen (ezkerti eta eskubientzako):</p> <ul style="list-style-type: none"> - aulkia, mahaia, gorputz jarra, orria, idazteko tresna... <p>- Grafomotrizitatea.</p> <p>Zer den ezagutzea.</p> <p>* Irene Ibarra. Liburu idazle eta idazkera “txarren” gaian aditua.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Idazkera armonikoek ahalbidetzen dituzten parametroen azterketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - letren forma, orriaren antolaketa, letren neurria, letren arteko lotura, makurdura, lerroen norabidea, presioa, abiadura... egoki edo orekatuenak. <p>* Irene Ibarra. Liburu idazle eta idazkera “txarren” gaian aditua.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Idazkerak “txar” bilakatzen dituzten elementuak identifikatzen.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Idazkera “txarrak” bideratzeko tresna eraginkorrak barneratzen. <p>* Irene Ibarra. Liburu idazle eta idazkera “txarren” gaian aditua.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Idazkera “txarra”? Ez, eskerrik asko



Ikastaro honetan gustura eskuz idazteko baldintza egokienak zein diren zehaztuko dugu: mahai eta aulkien berezitasunak, orriaren posizioa adinaren eta ezkerre edo eskuine izatearen arabera, gorputzaren jarrera atalez atal (sorbaldak, besagaina, ukondoa, eskumurrak), idazgailu motak eta hauek eroso heltzearen garrantzia. Idaztearen ekintzan parte hartzen duten osagai horiekin era harmonikoan eta ergonomikoan zelan jokatu azalduko da.

Ondoren, idazkera “txarrak” aurrehartzeko grafomotrizitatea lantzea-




Iruñe IBARRA

Filologoa, grafologoa, EHUko irakaslea eta UEUko kidea

ren garrantziaz ariko gara. Eskuaren eta begiaren koordinazioa, formaren konstantzia, atzamar-eskuen lantzea, erritmo grafomotorea... hori guztia eskolaurrean eta 8 urte

ingurura arte jorratzea funtsezkoa da haurrak idazketa era erosoan lordez.

Idazkera harmonikoak ahalbidetzeko oso garrantzitsua da letren arteko loturak zelan egin irakastea, espazioen antolaketaren esanahiaz konturatzea, lerroen horizontaltasuna barneratzea... Harmonia ikusi eta gero, harmonia hori apurtzen duten elementuak identifikatuko ditugu: idazkera oso txikiak, irregularrak, zikinak, desordenatuak... dira idazkera “txarrak”. Horietako bakoitzak zergati eta konponbide berezia dauka. Kaligrafiarik egin gabe nola bideratzen diren ikusiko dugu.



Niri ez zait matematika gustatzen

Lekua: **Pedagogia Fakultatean, 1.7 gelan**

Uztailak 3	Uztailak 4	Uztailak 5
8:30 Dokumentazioaren banaketa		
9:00 Sarrera ekitaldia	9:00	9:00
9:30 - Esperientzia matematikoak.	- Zenbakien propietate harrigarriak.	- Matematikako ikerketak eta probak.
Matematika-argazki rallya.	- Matematika paper eta guraizeekin.	- Eginiko lanen aurkezpena.
- Matematikako jolasak.	* Jesus Mari Goñi. EHUko irakaslea	* Jesus Mari Goñi. EHUko irak-
* Jesus Mari Goñi. EHUko irak- kaslea eta ikasliburu egilea.	eta ikasliburu egilea.	kaslea eta ikasliburu egilea.
14:00 BAZKARIA	14:00 BAZKARIA	14:00 BAZKARIA



Niri ez zait matematika gustatzen



Niri ere ez zait matematika gustatzen izenburuko ikastaroak nire baitan dudan sinesmen batean du iturburua. Ikastea eta erakustea guztiz loturik dauden prozesuak dira; erakuste moduak ikasten dena baldintzatzen badu (honetan denok bat gatoz) ikaste moduak, era berean, erakusten dena moldatzen du. Azken hamarkadotan Matematika erakuste bideak birplanteatzeko beharra behin eta berriro errepikatatu al da? Ez dakit. Jakingo banu hobe, baina

Ez dakit. Baina problema konplexu honetan eragin esanguratsua duen faktore bat identifikatzeko gauza naizela uste dut. Irakasleek dakitenak eragin zuzena du erakusteko duten moduan. Horixe da nire tesia. Ondorioa sinplea da: irakasleek dakitena aldatu gabe nekez alda genezake erakusten dutena. Irakasleriaren formazioan jarraitutako estrategia gehienek besterik uste izan badute ere, antzua da "era batean dakien bati" beste era batean nola erakutsi daitekeen agertzea, antzua informazio "didaktiko" hori jasotzen duena egin behar duen batuketa burutzeko gauza ez delako. Formula matematiko bat erabiliz azalduko dut esan nahi dudana:

Ezagutza matematikoa + Aholku didaktikoak = Prestakuntza didaktikoa
Berdintza faltsua da.



Jesus Mari GOÑI
EHUko irakaslea eta ikasliburu egilea

Batuketa hori ez dago egiterik, ezagutza matematikoak berak bere baitan gordetzen baitu erakuste estiloa. Eta ezagutza ikasteko jarraitu den bidea aldatzeko aholku didaktikoez (normalean aholku metodologikoez) adina indarra izango dutela sinestea ameskerria da. Errealitateak, behin eta berriro, deusestatzen duena.

Gogorra bada ere Matematika beste era batean erakusteak beste era batean ikastea eskatzen du. Horixe da bederen nire sinesmena. Horregatik, ikastaro honetan parte hartzen dutenek ez dituzte "nola erakutsi behar denari buruzko" aholkuak jasoko. Ez da hori nire asmoa ekitaldi hau proposatzera koan. Irakasleak dakiena eta ez dakiena da niri orain interesatzen zaidana. Irakasleak beren garapen intelektual propioa behar duten pertsonak dira, eta ez bete ahala ustutzen diren kupe-lak.

Maiz entzuten da irakasleen artean beraiek jakin badakitela, baina dakiten hori erakusteko metodologia ego-

kia dela faltan sentitzen dutena. Ez nago ados. Arazoa sakonagoa da, hots, dakigun Matematika, eta dakigun Matematikak ikaste prozesuan gugan sortu duen perspektiba.

Ahantz dezagun, une batez, irakasleak garela. Pentsa dezagun pertsona hutsak (ez da gutxi) garela. Pentsa dezagun ikastea, ikasten dena ederra bada, berez balio duen zerbait dela. Ikasteari plazera ateratzen ez dion pertsonak nekez sorraraz dezake sentimendu hori besteengan. Irakaslea den pertsona da aldaketa guztien funtsa eta sustengu garrantzitsuena. Maiz ahaztu egiten dugu errealitate hori eta bide laburragoa ibili nahi izateagatik galdu egiten gara.

Matematika ederra da eta ikastea plazer bat. Ez baduzu sinesten, etor zaitez.

Irakasleek dakitenak eragin zuzena du erakusteko duten moduan. Horixe da nire tesia. Ondorioa sinplea da: irakasleek dakitena aldatu gabe nekez alda genezake erakusten dutena

Heriotza heziketan. Egungo tabua?

Lekua: **Pedagogia Fakultatean, 0.5 gelan**

Uztailak 3	Uztailak 4	Uztailak 5
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia</p> <p>9:30 - Galera, heriotza eta dolurako hezi: bizitzarako hezi. Kataluniako esperientzia.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zenbait hezkuntza esparrutan galera, heriotza eta doluaren pedagogiari buruzko esperientzien sarrera historikoa. - Dolu prozesuen eskema. - Zenbait bizipeneko jarduera aztertuko ditugu. <p>* Maria Antonia Plaxats. Psikoterapeuta eta “Educar para la vida, educar para la pérdida, la muerte y el duelo en la escuela” mintegiaren koordinatzailea, Kataluniako Rosa Sensaten.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Hezitzaileak dolua eta galeraren aurrean.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dolua eta galeraren aurrean hezitzaileoi hunkitzen gaituzten aldeak aztertuko ditugu. Paradigma Hollistikoren filosofia oinarritzat hartuz, hainbat gairi buruz hausnartuko dugu. <p>* Patxi Izagirre. Psikoterapeuta, zainketa paliatiboetan espezialista. Donostiako Ekintza ikastolako psikologoa.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Heriotzaren nahigabea eramateko hezitzaileen inguruko alde didaktikoak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kasu praktikoak aztertuko ditugu eta orientzaio pedagogikoaz gain galderak eta eztabaida bultzatuko dira. <p>* Patxi Izagirre. Psikoterapeuta, zainketa paliatiboetan espezialista. Donostiako Ekintza ikastolako psikologoa.</p> <p>* Maria Antonia Plaxats. Psikoterapeuta eta “Educar para la vida, educar para la pérdida, la muerte y el duelo en la escuela” mintegiaren koordinatzailea, Kataluniako Rosa Sensaten.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Heriotza heziketan. Egungo tabua?

Orain dela hilabete batzuk heriotzari eta bere ingurukoari buruzko ikastaro bat emateko proposamena egin zidaten. Gorbidea berria iruditu zitzaidan pedagogia arlotik egin zidatelako eta mintegia irakasleei zuzendutakoa izango zelako.

Zerbitzu klinikoetara bideratutako prestakuntzan aritu izan naiz eta beti pentsatu izan dut heriotzaren eta hiltzearen pedagogia egoki bat osatu behar dugula heriotza gure garapen naturaleko zati bezala integratzeko helburuarekin. Hezkuntzarekin ere erlazio estua daukat eta horrek guztiak zuei espazio desberdin bat erakustera animatzen nau, ahaztuta daukaguna gogoratzeko espazioa.

Maria Antonia Plaxats-ekin harremanetan jarri nintzen ikastaroa Katalunian garatu diren esperientzia aitzindariekin aberasteko asmoz. Hasieratik agertu zen kolaboratzeko prest eta hortik sortu da ilusioz betetzen gaituen proiektua.

Hik Hasik eskaintzen didan leiho hau aprobeixatu nahi dut ikastaroaren nondik-norakoan berri emateko eta zenbait ideia aurkezteko.

Orain dela gutxiko kasu bat etorri zait gogora, minbizia dela-eta ama galdu duen 14 urteko nerabe batena. Doluaren aurrean gaztearen erreakzioa zein izaten ari den behatzen ari naiz, nola jokatzeko duten familiak, osasun euskarriak (pediatria), eskolako kideak, eta azkenik, berarekin dauden irakasleek.

Irakasleek ikaslea krisi egoeran dagoela eta laguntza behar duela susmatzen dute. **Zer egin?** Lankideen



Patxi IZAGIRRE

Psikoterapeuta, zainketa paliatiboetan
espezialista
Donostiako Ekintza ikastolako irakaslea

arteak kasu komentatzen da, egoerarekin enpatizatzen dute, eta ezintasun sententzio ikaragarria sortzen da. Gertuko norbaiten ehorzketan familiakoarengana hurbildu eta zer esan ez dakigunean sentitzen dugunaren antzeko zerbait sentitzen dugu.

Garrantzitsua da egoera horretan dagoen ikaslearen mina irakurtzeko erreferentzia txiki batzuk edukitzea, eta baita krisi horrek taldean izango duen eragina ulertzea ere. Haatik, eginkizun hori eguneroko amesgaizto obsesiboa bihurtzen denean eta segurtasun ezak gure portaera blokeatzen duenean, agian zera planteatu behar dugu: **zer gertatzen zaigu heriotzaren aurrean?**

Heriotza gure bizitzako gertaera ekidin ezina da eta inork ez digu horretaz hitz egin duen garrantzia eman. Are gutxiago geletan, eta inolaz ere ez Pedagogia Fakultateetan edo Irakasle Eskoletan. Aipatu ikaslearen irakaslea gure gizartearen beldurra

ezin hobeto deskribatzen duen tabu baten aurrean aurkitzen da.

10 eta 13 urte bitarteko neska-mutil askok heriotzari buruzko galderak kuriositate handiz egiten dituztela ikusten dudanean, gai horrek beraien zentzuan duen misterioa entzuten dudanean, zera galdetzen diot neure buruari: zer egiten dugu galdera horri ziurgabetasun, segurtasun eza, ezezagun eta beldur zentzua emateko? Ohikoena nola edo hala aurrera egitea izaten da, eta gorde nahi duguna gutxi gorabehera sofistikuatuak diren moduekin mozorrotuz egin ohi da hori. Hau da, heriotza ukatzen ikasten da minari aurre egiteko eta bizirauteko.

Sarritan proposamen erakargarriak jasotzen dira gai hau ikastetxeko curriculumean zeharlerro bezala lantzeko. Ez dut inolako zalantzarik sexualitatea, bide segurtasuna, drogak, euroa edota elkartasuna oinarritzekoak direnik heziketa proiektuetan. Norbaitek pentsatuko du heriotza beste bat gehiago bezala sartzea proposatzen ari naizela eta garrantzitsua dela, eta zentzu batean hala da. Dena dela, badakit edukiak soberan daudela eta irakasleei presio izugarria egiten zaiela. Nire proposamena hausnarketara bideratua dago; gure gizarteko hainbat arlotan planteatzen diren erantzunik gabeko galderen inguruko hausnarketa egitea proposatzen dut.

Lehen esan dizuedan bezala, ikastaroari buruzko zenbait ideia eman nahi izan dizkizuet. Hortik aurrerakoa ikastaroan bertan aurkitzera gonbidatu nahi zaizkizuet. Dударik gabe bertan parte hartuko dugunon hausnarketek aberastu egingo gaituzte.

Gelarako, heriotzera eta dolurako hezi: bizitzarako hezi

Ikastaroaren helburu orokorra gure gizartean, eta ondorioz gure ikastetxeetan, ukatzen den gai baten inguruan hausnartzera animatzea da. Momentuz, eskolatik galerei aurrez aurre begiratzearekin konformatzen gara, eta horien artean oso garrantzitsua den bati: heriotzari.



**Maria Antonia
PLAXATS**

Psikoterapeuta eta "Educar para la vida, educar para la pérdida, la muerte y el duelo en la escuela" mintegiaren koordinatzailea
Rosa Sensaten

Katalunian aurrera eramaten ari garen **Doluaren Pedagogiaren** garapena ezagutzeko aukera izango duzue ikastaroan. Ez ditut gure lan taldearen esperientzia, emaitzak eta ondorioak soilik azalduko, ezagutzen ditugun guztiak baizik.

Galera garrantzitsuen aurreko doluaren gaia 1988an lantzen hasi nintzen. 1993an egin genuen galerei buruzko lehen esperientzia pilotua Bartzelonako ikastetxe publiko batean. Valentí Teixidor eta biok burutu genuen esperientzia hura 5. eta 6. mailako bi ikasle talderekin. Ordubeteko hiru saio burutu genituen eta eztabaidatzeko, marrazteko, idazteko... zenbait galdera aurkeztu genizkien. Gure helburuetako bat neska-mutilak adimen emozionalaren munduan sartzea zen, hau da, gure sentimenduen, emozioen eta gogo aldaratearen garrantzia ulertzea (garuneko ezker hemisferioarena) eta garuneko erdi eta ezker hemisferioko funtzioekin behar duen kudeaketa osa-

suntsuaz jabetzea. Beste helburu bat izan zen gure emozioei buruz hitz egiteko denbora eta espazioa eskaintzea eta ahal zen leialtasun handienarekin azalaraztea. Emaitzek espero genuena gainditu zuten, pisua duten hainbat galera agertu baitziren: lagunak, gurasoak, amona, dena galeraren beldurra...

Esperientzia horren ondoren beste hainbat etorri ziren eta ondorengo urteetan hitzaldi eta ikastaro ugari eman ditut gai horren inguruan. 1995ean Joan-Carles Mélich, Concepción Poch eta hirurok estatu mailan lehenengoa izan zen ikastaroa diseinatu genuen: "Bizitzarako hezi: heziotzarako hezi". Rosa Sensaten aurkeztu genuen ikastaroa. Jende gutxi eman zuen izena, baina ikastaroa oso ongi

irten zen, balorazio oso positiboa egin genuen. Geroztik Rosa Sensateko udako, udazkeneko nahiz neguko ikastaroetan aritu gara ikastaro hau ematen. Ikastaroari izenburua aldatu diogu, edukiak egokitu eta gaurkotu ditugu, taldea handitu dugu eta espezialista askoren kolaborazioa jasotzen dugu. Era berean, hainbat lekutatik deitu digute ikastaroa eman dezagun. Horrekin batera, egoera zehatzetan laguntza eta aholkua eskatzen digute.

Horren guztiaren berri izango duzue ikastaroan, gure arteko hausnarketa eta eztabaidekin batera.

**Katalunian
aurrera eraman
ten ari garen
Doluaren Peda-
gogiaren gara-
pena ezagutze-
ko aukera
izango duzue
ikastaroan**

Ostadarren hotsaz

ASCHERO musika sistema
Euskal abestiak, abesti eza-
gunak... sistema horretan
aurkeztuak.

Egilea: Jose Ramon Vitoria



Eskolak bakarrik ezin... Familiak bakarrik ezin...

Lekua: **Pedagogia Fakultatean, 0.1 gelan**

Uztailak 3	Uztailak 4	Uztailak 5
8:30 Dokumentazioaren banaketa		
9:00 Sarrera ekitaldia		
9:30	9:00	9:00
<ul style="list-style-type: none"> - Familiaren kontzeptua eta bere funtzioak perspektiba sistemikotik. - Familiako bizitza zikloak eta bere eragina eskolan. - Haurraren eta nerabearen ezaugarri nagusiak. - Familiekin bilerak aldatetako bultzatzeko. - Bileren prestaketa: helburuak zehaztu eta hipotesiak egin. - Entzuteko gaitasuna garatzea. - Bileraren ondorengo analisia eta jarraipena. 		
<p>* Marije Uranga. Psikomotrizista eta familia terapeuta. Familia Terapiaren Euskal Eskolako kolaboratzaile irakaslea. Kontsulta pribatuan egiten du lan eta baita hainbat eskoletan irakasleak prestatuz. Perspektiba Sistemikoan oinarritutako ikastaroak ematen ditu.</p>		
14:00 BAZKARIA		



Eskolak bakarrik ezin... Familiak bakarrik ezin...



Ikuspegi sistemikoak dituen abantailak adieraztea ez zait erraza. Ikuspegi sistemikoak azaltzen diguna zera da: erlazio sistemen gorabeherak. Ez dago errudunik edo denok gara errudunak nerurri batean .

Indibiduoaren garapenean gehien eragiten duten bi sistemak familia eta eskola direla onartu arren, oraindik asko falta da bi sistemak elkarrekin lan egiteko.

Azkenaldian familiak asko aldatu dira eta hezkuntza sistemak neska-mutilari laguntza eskaintzen jarraitu behar du bere heziketa eginkizunean. Eskola eta familiaren arteko elkarlana zein eraginkorra den egiaztatzen ari gara. Ikaslearen arazoak familia-eskola



Marije URANGA
Psikoterapeuta eta familia terapeuta

kontestu bikoitzean aurkitzeko gaitasunak lan bateratua egitera eraman gaitu, errudunak bilatzea alde batera utziz.

Eskolak arazoak aurkitzen ditu eta jatorria eta kausa familiar egotzi diezazkioke; familiak, bere aldetik, eskolari, ordura arte egoera hori ez zelako

sortu. Zenbat eta gehiagotan esan familiak ez duela laguntzen, orduan eta gutxiago lagunduko du. Zenbat eta erru gehiago egotzi eskolari, orduan eta gutxiago onartuko du.

Ikuspegi sistemikotik “zergatik” galdera (lineala, kausa-ondorioa) “nola” galderak ordezkatzeko du, hau da, “nola” sortzen den arazoa, eta ez “zergatik”.

Pentsamolde sistemikoak kontestua kontuan hartzen duen portaera indibidualari egiten dio erreferentzia.

Sistemen teoria orokorrak eredu linealarekiko alternatiboa den marko teorikoa eskaintzen du, zeinak kausak bilatzen dituen ondorioak azaltzeko.

Arazoak atzemateko dauden diferentziak argituko ditugu, nola gertatzen diren pentsatuz zergatik gertatzen diren baino.



Nahigabe psikikoa bideratzeko interbentzio goiztiarra

Arduradunak: Lupe Apezetxea eta Marga Alkorta

Lekua: Pedagogia Fakultatean, 2.4 gelan

Uztailak 3	Uztailak 4	Uztailak 5
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa</p> <p>9:00 Sarrera ekitaldia</p> <p>9:30 - Familia-erlazioa eta funtzionamendu mentala. Familia-erlazioa burua egituratzen doa eta funtzionamendu mental honen araberakoa izango da ikasteko modua.</p> <p>* Lourdes Otermin Arrizurieta. Psikologo-Psikoterapeuta</p> <p>-Tailerrak. Hainbat kasu agertzeko hiru tailer antolatuko dira.</p> <p>- Elkar-jartzea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Behaketa. Behaketa, garapen emozionala ulertzeko ikerketa metodoa.</p> <p>* Lupe Apezetxea Arozena. Psikologo- Errenteriako PATEko Talde Multiprofesionala.</p> <p>- Kasu larrietan ez ohiko interbentzioa eskolan. Familiak haurrak dituen beharrei erantzun egokia emateko ezintasuna dela-eta eskolan egindako konpentzazio lana.</p> <p>* Marga Alkorta Eizagirre. Pedagogogo- Errenteriako PATEko Talde Multiprofesionala.</p> <p>- Tailerrak. Kasu larrien behaketen azterketa egin ahal izateko, hiru tailer antolatuko dira.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Haur Hezkuntzan interbentzio psikologikoa garapen on baten tresna eragile.</p> <p>-Beharren detekzioa.</p> <p>-Interbentzioa egiteko proposamena.</p> <p>* Angels Ciutat i Montserrat. Filosofia eta letretan lizentziatua psikologia atalean. Bartzelonako Les Corts Buruko Higienarako Zentroan dihardu 1975az geroztik, eta egun hango prestakuntza eta irakaskuntzarako koordinatzailea da.</p> <p>- Lehen Hezkuntzan interbentzio psikologikoa.</p> <p>-Zailtasun emozionalak eta ikasketak arazoak.</p> <p>-Norbanakoarentzat eta instituzioarentzat bitartekoak prebentziorako.</p> <p>* Rosa Sellarés i Viola. Psikologian Doktorea eta Pedagogia Terapeutikoan lizentziatua. PRESME (Pro educación y salud mental) Fundazioko zuzendaria da.</p> <p>- MAHAI INGURUA.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Nahigabe psikikoa bideratzeko interbentzio goiztiarra

Utz nazazu izaten, beraz, gau orduetan kantatuko dizun abesbatza...
John Keats

Psikoanaliaren ikuspegi orokorrarekin bat, gure erreferentzia markoa Bion, Esther Bick eta Donald Meltzerrek jorratutako teoriak dira.

Familia erlazioak burua nola egituratzen duen, eta aldi berean, gure ikasteko modua nola antolatzen duen lan taldean hausnartzea eta eztabaidatzea da gure zeregina.

Funtzionamendu hau ulertzeko erarik aberatsena, gure iritziz, Esther Bicke sortutako *Behaketa Metodoa* da.

Esther Bick, Bion eta Meltzerrek euren ikerlanetan M. Kleinek aurkitutako kontzeptuak dituzte abiapuntu: *posizio eskizoparanoidea eta posizio depresiboa*, alegia.

M. Kleinek dioenez, posizio eskizoparanoidean haurrak, kanpo errealitatean ezarrita, honoko mekanismoak erabiltzen ditu heriotz senak sortutako antsietateari aurre egiteko: disoziazioa, ukapena, omnipotentzia, idealizazioa eta identifikazio proiektiboa.

Posizio depresiboa disoziazioa integratzearen prozesua da. Eta Bionen honi buruzko ekarpena hau da: gorabehera dabiltzala bi posizioak bizi prozesuan (PS → D).

Pentsatze prozesua ulertzen laguntzen digun Bionen beste ekarpena *eusle-eusia*



Marga ALKORTA

Pedagogoa eta Errenteriako PATEko Talde Multiprofesionaleko aholkularia

kontzeptua da.

Hau ulertzeko haurraren bizitzaren sorrerara itzuli behar dugu eta amarekin izandako erlazioa.

Bionek dioenez, haurrak duen antsietate eta egonezina garrasi bidez kanporatzen badu, eta amak hartu, jaso eta on bilakatuta itzultzen badio, amak *rêverie* gaitasuna du. Amaren eusteko gaitasun honen bidetik barneratuko du haurrak ama, beharren asetzailer izateaz gain, pentsatzen duen izaki ere badela ohar-tuz. Horrek abian jarriko du haurraren pentsatzeko gaitasuna, eta pentsatzeko gai izate-ez izate arteko egoeraren oinarriak ezarriko ditu.

Bionek ama-eusle eta haur-eutsiaren arteko erlazio honi *K* binkulua deritzo, eta Meltzerrek dioenez buru topagune hori ikaskuntza eta ezagutzaren oinarria izango litzateke.

Ikasketa orok buru gatazkaren meha-



Lupe APEZETXEA

Psikologoa eta Errenteriako PATEko Talde Multiprofesionaleko aholkularia



Lourdes OTERMIN

Psikologoa eta psikoterapeuta

txua du; beraz, norbanakoaren garapena haustura eta integraziorako joeren arteko gorabehera txikietan datza.

Honela, ez jakiteak duen nahigabea toleratuz, ikasteak sortutako dependentsia egoera jasateko jarrerak eskainiko dion posizio depresiboa (esker ona eta objektuaren ongizatea) sortzen da.

Marko teoriko honekin, zailtasun psikikoak dituzten haurrei ulertzeko erabi-

litako lan egiteko modua azalduko genuke, non gurasoek euren eginkizunak betetzeko ezintasuna duten.

Mintegiaren haria *R* deitu diogun 3 urteko eskolatu berria den neska izango da.

Neska horrek ikaskideengan eta irakasleengan sortutako egonezina zela-eta, eskolak Pedagogia Aholkuteagiko (PAT) aholkularion laguntza eskatu zuen.

Hori ikusita, Talde Multiprofesionalako kideok lan plan hau proposatu genuen:

1. Esther Bicken Behaketa Teknikaz ikertu eta *R*ren funtzionamendua eza-gutzea.

2. Familia eta eskolaren testuinguruaren azterketa egitea.

Aipatu epean *R* eta bere gurasoen funtzionamendua ezagutu ondoren, honako abordatze proposamena egin genuen:

1. Psikoterapia eskolan.

2. Elkarriketak gurasoekin, maiztasun batekin.

3. Bilerak Haur Hezkuntzan, maiztasun batekin.

4. Gurasoekin euste lana, EPIn (Osakidetzan).

Proposamen horrek, eskolan espero ez bezalakoa zelako, inpaktua sortu zuen, eta ideia berriko proposamen hau onartzeko zailtasunak azaldu ziren; hau da, bestearen proposamena onartzeko zailtasuna.

Bionek dioen bezala, *idea berria barneratzeari ekiteko, hau da, egoera mental batek bestera igarotzeko, zailtasunak eta ahulda-dea dakarren trantsizio egoera toleratzea da baldintza.*

Kasu horren bidez, aurrez azalduko aurreikuspen teorikoak gorpuzten doaz.

Psikoterapia egiteko prestakuntzan diharduen profesional baten parte-hartzea izan dugu. Esher Bicken Behaketa Zuzenaren Teknika, *ama-haurra-inguru-nearentzat* sortu zuen; baina, une honetan, beste alorretara hedatzen ari da, eskolara esaterako.


Esther Bicken Teknika kontuan hartuta, behaketa esperimentaletik at, *begiratu eta erlazioaren behaketan barneratzean*

datza teknika behatze modu hau. Horrek *R*ren buru funtzionamenduan, eta kide-ekiko eta helduekiko duen erlazioen ezagutze eta deskubritze ildoan bilatzen utziko digu.

Behaketa lan hau hainbat eremutan egin da: ikasgelan, psikomotrizitate gelan, sarrera-irteeretan eta jolastokian.

Bionen euste kontzeptua lan metodologian islatu da; hau da, *R* irakasleak eta psikoterapeutak eusten dute; irakaslea, aldi berean, Talde Multiprofesionalak zuzendutako taldean; eta psikoterapeuta, berriz, asteroko gainbegiratze saioak eusten du.

Meltzerrek proposatu eskema oinarri izan da, beraz, haurra eusteaz gain, euslea ere eusten da. Eskema honek dioena hau da: amak haurraren proiektzioak eusten ditu, eta aitak, haurraren eusle den ama eusten du.



Ondoren aurkeztuko dugun planteamendua Martha Harris eta Donald Meltzerrek deskribatua izan da.

Haiek diotenez, familia bizitza egonkortasun mailak dituen antolamendua da:

- Ezkontza-familia
- Koadrila-familia narzisista
- *Supuesto-básico* taldea

Ikasteko moduak mugatzen du izaera, eta aldi berean, honengan familia erlazioak eta antolamendu mailak du eragina. Edozein familia talderen asmoa osatzen duten kideei ikasteko adorea ematea da. Jakintza eta trebetasunak lortzea nortasun garapenaren lagungarri izan daiteke.

Esperientziak ikasteak pertsona eraldatzen du, esperientzia emozional baten ondorio baita ikasketa hori; eta bertan nahasketara darabaten zentzumen datu kaotikoak eta hondamen antsietateak objektu baten menpe daude, barne edo kanpoko guraso transferentzia batekin ordenatuak izan daitezten.

Ikasbide hau ezkon familiarena litzateke; eta bere buru den bikoteak honako eginkizunak izango ditu:

Maitasuna sortu,

Itxaropena sustatu,

Nahigabe depresiboari eutsi

eta pentsatu.

Talde honetan, seme-alabek gurasoek edozein egoerari aurre egiteko erabilitako pentsamendu mota barneratuko dute.

Koadrila-familia-narzisista deitu erduan, agintzen duenak (aita, ama) heldutasuna eta sasi-heldutasunaren arteko oreka ezegonkorra du.

Familia hau osatzen dutenen ikasbidea "lapurreta" eta *identifikazio adhesiboa* da, hau da, azaleko ezaugarriekin identifikatzea.

Supuesto básico deitu taldean buru dena egundokoa da. Beregan daude errepresentatuak pentsatzea, antolatzea eta erantzukizunak hartzea.

Funtzionamendu hau duten familietako kideek *identifikazio proiektibo eta adhesiboren* bidez ikasten dute. Goi gaitasunekiko bekaitza litzateke identifikazio proiektiboa, eta bere xedea ezagutza hau bat-batean lortzea da.

Aipatu ereduak ez dute betikotasunik; aldiz, familia unitate edo familia zabaletik at, zerikusi zuzena dute haurrari irakasle, terapeuta eta heroi historikoak bezalako irudiekin transferentzia erlazioak sortzeko duten gaitasunarekin.

Komunitatean aldakorrek diren beharrei eta norbanakoaren garapenari zuzendua izango den sistema sentikor eta erabilgarri baten marko egokia izan daiteke norbere familian, komunitate batean, dagoen haur eredu hau.



Haur eskola: haurraren garapenean haur eskolak edota haurtzaindegiak duen funtzioari buruzko iritziak



Haurraren garapenean eragin dezaketen haur eskolaren ezau-garriez arituko gara, harremanaren alderdiak zaintzearen garrantzia azpimarratuz. Haur eskola buru osasunaren prebentziorako eta promoziorako oinarritzko elementua nola izan litekeen ere ikusiko dugu.

Haurraren garapenean eskola eta familia funtsezko bi testuinguru direla aintzat harturik, familia eta eskolaren arteko harremana zaintzearen garrantzia aztertuko dugu.

Haur eskoletako eta haurtzaindegietako psikologoaren interbentzio eredu bat aurkeztuko dugu, zeinak irakasleekin eta hezitzaileekin aldi berean lan egitea aurreikusten duen. Horrek haurraren behar emozionalei arreta handiagoa jartzea ekartzen du, lehen eta bigarren mailako prebentzio lana garatuz.

Angels CIUTAT I MONTSERRAT

Filosofia eta Letretan lizentziatua
Psikologia atalean

Haur eskoletako eta haurtzaindegietako psikologoaren interbentzio eredu bat aurkeztuko dugu, zeinak irakasleekin eta hezitzaileekin aldi berean lan egitea aurreikusten duen



Zailtasun emozionalak eta ikasketa arazoak. Prebentzio elementuak

Eskolako interbentzio psikologikoa hainbat elementuren baiman egongo da: testuingurua, instituzioak eskaintzen duen markoa, haur garapenari buruzko teoriak, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak eta praktika profesionala bideratzen duten harreman interpertsonalak.

Eskolako errealitateak etengabe krisian jartzen du ametszko ideia hau: haurren zailtasunak "heziketa" behar bereziak bezala itzultzeak eta metodologiak egokiak, haurren aurrerapen pedagogikoa eta ongizate psikologikoa eta irakasleen asetzea eta eraginkortasun sentimendua bermatzen dituela. Eskola ez da eremu neutrala eta isolatua, diskurtso teknokratiko batekin maneia daitekeena. Kanpoko eraginek, irakasteko eta ikasteko zereginak berak eta bere baitan gertatzen diren aldaketa sozial konplexuek eragin izugarria dute pertsonengan, irakasle edo ikasle izan. Batzuen zein besteen ziurgabetasunak eta ezinegonak eskolan azaleratzen dira.

Irakasleak oso kezkatuta egon ohi dira, eta batzuetan gainezka, ikasle batzuentzat; zeren, beren portaera bat edo bestea izan (inhibitua, zirikatzailea, barreiatua, aldendua...) badirudi ez dietela erantzuten irakasleak eta eskolak egiten dituzten esfortzuei eta ezin dutela ikasteko jarrerarik hartu. Edozein gelatan aurki daitezke horrelako haurrak. Beraien zailtasun emozionalak direla-eta, ikasteko gaitasunak blokeatzen zaizkie edo

Rosa SELLARÉS I VIOLA

Psikologian doktorea eta Pedagogia
Terapeutikoan lizentziatua

eskolako jabetzeak ez dituzte ikasteko plazer eta aurrerapen pertsonal bezala ikusten. Beraien ikasketa akademikoa eta soziala oztopatzen dituzten arazo pertsonalak ekartzen dituzte eskolara, eta zenbait kasutan (zorionez gutxitan Haur Hezkuntzan), asko aztora dezakete gelako erritmoa. Zailtasun emozionalak garrantzitsuak direnean, ikasketa prozesuen kalitatea eta errekurtsu pedagogikoak ez dira nahikoak haur horien aurrerapena bermatzeko.

Psikologoaren funtziotako bat eskolarekin lankidetzan jardutea da zailtasun emozionalak eta ikasketa eragozpenak egoki tratatzeko helburuarekin. Hautemate eta interbentzio goiztiarrak balio handia izango dute haurren garapenerako eta etorkizuneko sufrimentu edota baztertze egoerei aurre hartzeko.

Prestaketa egokia duen psikologoak laguntza handiko kolaborazioa eskain dezake hainbat gauzatarako: instituzioaren euskarriak posibilitatzeko, irakasleei ulermenerako elementu teorikoak eskaintzeko, familiak orientatzeko, maila pedagogikoko edo pertsonaleko erabakiak hartzeko eta ikasketarako gune "babestuak" posible egingo dituzten neurriak ezartzeko.

Psikologoaren funtziotako bat eskolarekin lankidetzan jardutea da zailtasun emozionalak eta ikasketa eragozpenak egoki tratatzeko helburuarekin. Prestaketa egokia duen psikologoak laguntza handiko kolaborazioa eskain dezake

Arratsaldeetako saioak

Informatika eta Pedagogia Fakultateetan

Uztailak 3, asteartea

- Web diseinua: grafikoak eta animazioa. Inf, 16 gelan
* Miguel Angel Lopez
- Klik programan aplikatzeko jarduerak. Inf, E8 gelan
* Jose Manuel Beltran
- Prestakuntza telematikoa. Inf, 123 gelan
* Jexus Mari Goñi
- Hezitzailea heriotza eta doluaren aurrean. P, 0.1 gelan
* M. Antonia Plaxats
- PNL: Ikuspegi orokorra. Heziketarako erabilpen batzuk. P, 0.2 gelan
* Iñaki Barrenetxea
- Kirol estraeskolarra: jarraibide pedagogikoak. P, 0.4 gelan
* Aitor Uriondo
- Idafe. Autoerrealizazio bidean. . P, 0.5 gelan
* Pedro Hernandez
- Informatika proposamen kurrikular baten aplikazioa (DBHko 1. zikloan). P, 0.6 gelan
* Josune Gereka
- Gatazken bideratzea. Zenbait programen eta esku-hartzeko osagaien aurkezpena. P, 1.1 gelan
* Ramon Alzate, Amaia Agirre eta Lucia Gobena
- Proposamen berriak. P, 1.4 gelan

Uztailak 4, asteazkena

- Klik programan aplikatzeko jarduerak. Inf, E8 gelan
* Jose Manuel Beltran
- Prestakuntza telematikoa. Inf, 123 gelan
* Jexus Mari Goñi
- Heriotzaren inguruko gogoetak eta bizipenak. P, 0.1 gelan
* Patxi Izagirre
- "Euskal Curriculuma" Tailerra. P, 0.2 gelan
* Felix Basurko
- Mendi orientazioa. P, 0.4 gelan
* Luis Larrañaga "Pizti"
- Argitalpenen aurkezpenak. P, 0.5 gelan
- Talde Operatiboak. P, 0.6 gelan
* Joxean Goia eta Julian Martinez
- Gatazken tailerra... dagokien irtenbideekin. P, 1.1 gelan
* Carme Boque i Torremorell
- Proposamen berriak. P, 1.4 gelan

Uztailak 3



Miguel Angel LOPEZ

Ignacio Aldekoa ikastetxe publikoko irakaslea

Web diseinua: grafikoak eta animazioa

1. Grafikoak sortzeko XARA WEB STYLE shareware-ko programak dituen plantilak erabiliko ditugu. Sortu ahal ditugun grafikoak, honako hauek izan daitezke: tituluak, botoiak, banaketa egiteko lerroak eta biñetak.

2. Gif animatuak. Paint Shop Pro programaren ANIMATION SHOP (Shareware-koa) erabiliko dugu.

- Zer den gif animatua
- Bistarapena
- Sorketa: morroia erabiliz
- Koadroak
- Testua eta abar.

3. Grafiko eta irudiak bistartzeko programa ACDSsee 3.1

- Nola erabili
- Aukerak



Jose Manuel BELTRAN

Gasteizko Antonio Lopez de Guereñu ikastetxe publikoko irakaslea

Klik programan aplikatzeko jarduerak (marrazki bizidunak)

“.gif”, “.avi”, “.mid” eta “.wav” artxiboak.

Zer dira? Nondik eta nola lortu? Non eta nola aplikatu?

Internet sarean murgildu eta zuzenean edo bilatzailez baliatuz disketera adibide batzuk jaisteko balio dute artxibo horiek.

Irekitzeko programa egokiak burutu eta erabil daitezke: gif construction, animagic gif, soinu grabatzailea, wave estudio.

Marrakzi bizidunak eta banners (testuak) ere sor daitezke.

Irudiak banan-banan marraztu eta margotu, itsasi eta abiadura kontrola daiteke: paint shop pro, adobe, paint, gif constructor...

“Gif bizidun” artxiboak “avi” artxibo bihur daitezke Klik aplikazioetan kokatzeko.



Jesus Mari GOÑI

EHUko Pedagogia Fakultateko irakaslea eta ikasliburu egilea

Prestakuntza telematikoa (I)

Tailer hauen helburua prestakuntza telematikoa ezaugarri buruz gogoeta egitea da, bereziki Internet erabiliz irakasleek etengabeko prestakuntza profesionalean lor dezaketena komentatuz. Ikastaro honek bi zati izango ditu: lehenengoa teorikoa, eta hurrengoa praktikoa. Zati teorikoan Interneten erabilpenak ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan, eta horren barruan irakasleen prestakuntzan, sor ditzakeen aldaketak aurkeztea eta eztabaidatzea da helburu nagusia. Prestakuntza birtuala zer ote da. Aldi praktikoa dagoeneko bide honetatik abiatuta dauden zenbait esperientzien berri emango da eta orain arte izandako emaitzen balorazioa egingo da.

1. Saioa:

Aldi teorikoa: Prestakuntza telematikoa, ezaugarri nagusiak. Ohikoa den prestakuntza moldeekin dituen desberdintasunak. Ikasketak denbora eta espazio birtualean.

Aldi praktikoa: Esperientzien aurkezpena.



Mª Antonia PLAXATS

Psikoterapeuta

Hezitzailea heriotza eta doluaren aurrean

Krisi egoeren aurrean hezitzaileak jokatzen duen rola bizitzen lagunduko digun tailer praktikoa egiten saiatuko gara.

Emaila hau “Educar para la vida, educar para la pérdida, la muerte y el duelo en la escuela” mintegiaren koordinatzailea da Kataluniako Rosa Sensat.



Aitor URIONDO

Donostiako Axular ikastolako Heziketa Fisikoko irakaslea

Kirol estaeskolarra: jarraibide pedagogikoak

Kirol estaeskolarrean aurkitzen ditugun hainbat arazo eta egoera aztertzea izango dugu helburu nagusia.

Azterketa honetan, haurrengan eragina duten pertsonen eta horien jarrereren analisia egingo dugu; batez ere, monitore eta gurasoen papera aztertuko da.

Horrekin batera, gaur egun kirol estaeskolarrean jarraitu beharreko korronea (jokoa oinarri bezala hartuta) eta finkatu beharreko balioak argitzen saiatuko gara.

Azkenik, Gipuzkoan martxan jarritako kirol aniztasun proiektuari buruzko hausnarketa eta eztabaida egingo dugu.



Ramon ALZATE

EHUko irakaslea



Amaia AGIRRE Lucía GOBEÑA

Gatazken ebazpenetan doktoretza-aurreko bekadunak



Gatazken bideratzea. Zenbait programen eta esku-hartzeko osagaien aurkezpena. Diziplinar kodea.

Gatazketan esku-hartzeko eredu bat aurkeztuko da. Berau hainbat elementuz, prozesuz eta aktorez osatua dago: diziplina, curriculum, bitartekaritza programak, irakasleak, ikasleak, gurasoak...



Josune GEREKA

Ikastolen Elkarteko Hezkuntza Informatika Taldeko kidea

Informatika DBHn: proposamen kurrikularra eta bere aplikazioa

Informatikako ikasketak zentzuz landuko dituen curriculumaren diseinuan garrantzitsua da marko pedagogiko sendoan oinarritzea -gur kasuan Ostadar Proiektuarena-. Baina, hori bezain garrantzitsua da bere garapenean ikasmaterial egokien bidez jorratzea. Ikastolen Elkartearen Hezkuntza Informatika Taldeak irakasleari dagokion ekitza-plana indartuko duen proiektu osoa garatu du eta ikasmaterial konkretuaren eskaintzan gauzatu du. Hori da saio honetan aurkeztuko duguna.



Pedro HERNANDEZ

IDAFE programaren egilea

Idafe: autoerrealizazio bidean

Idafe izeneko programa hau hezkuntzan balioak lantzeko bitarteko bat da. La Lagunako Tafor argitaletxeak kaleratu du. Pentsamendu kritikoaren eta balioen garapenerako ikus-entzunezko programa da, bereziki Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat zuzendua dagoelarik. Pedro Hernández Hernández La Lagunako Unibertsitateko Hezkuntzaren Psikologiako Katedraduna da egileetako bat.



Iñaki BARRENETXEA

Psikologoa

PNL: ikuspegi orokorra. Heziketarako erabilpen batzuk

Urte batzuk badira PNLren oinarriak finaktu zirela. Azkenaldian dezente zabaldu da eta gure artean ere entzuten hasi den gaia da.

Gure errealitatearen esperientzia zentzumenetan oinarritzen da eta horrela, bakoitzaren baitan, errealitatearen ikuspegi berezia jasotzen dugu: zentzumenek ematen diguten errepresentazioa. Honek gure ingurugiroarekin harremanak baldintzatuko ditu. Guk geuk izan genezake baldintza hauen eraginaren kontrola.

Ikuspegi honek heziketarako dauzkan proposamenak azaltzea, praktikatzera eta eztabaidatzea izango da topaketa honen zeregin nagusia.

Uztailak 4



Jose Manuel BELTRAN

Gasteizko Antonio Lopez de Guereñu
ikastetxe publikoko irakaslea

Klik programan aplikatzeko jarduerak

Euskaraokea (ikasgelan karaokea ordenagailuaren bidez)

“Midi” eta “.kar” artxiiboak

Zer dira? Nondik eta nola lortu?

Internetetik adibideak har daitezke.

Euskal abestiak (16 gutxi gorabehera) martxan jartzeko programak daude: star3, smfkar4, winkaraoke player, vbasko...

Programa bakoitzaren ezaugarriak aztertu eta praktikan jar daitezke.

- Abesti batzuei (midi formatuan daudenei) hitza ezar dakieke: winkaraoke creator.



Jesus Mari GOÑI

EHUko Pedagogia Fakultateko irakaslea
eta ikasliburu egilea

Prestakuntza telematikoa (II)

Aurreko eguneko jardunaren jarraipena egingo da saio honetan.

2. Saioa:

Aldi teorikoa: izandako esperientzien balorazioa. Alderdi positibo eta negatiboak. Eztabaida.

Aldi praktikoa: esperientzien aurkezpena



Joxean GOIA

Lasarte-Oriako Landaberi
ikastetxeko irakaslea




Julian MARTINEZ

Olartzungo Elizalde ikastetxeko
irakaslea

Harreman pedagogikoan irakaslearen rola indartzeko: talde operatiboak

Azken urte hauetan asko idatzi eta entzun da “Burnout” sindromea buruz. Irakasleok ikasleekiko harremanetan maiz pairatu behar izan ditugu egoera zailak. Gaur egun, irakaslearen rola birdefinitzea guztiz beharrezkoa da. Norberak eraiki behar du erreferente teoriko bat praktikan gertatzen ari dena kokatu ahal izateko; hala eta guztiz, egoera zehatzetan “arazoak” sortzen diren momentuan, ezin dira guztiz konpondu. Irakasleen artean bigarren zirkuitu komunikatiboak (talde operatiboak) irekitzearen premia nabarmendu nahi dugu.



Patxi IZAGIRRE

Psikoterapeuta

Heriotzaren inguruko gogoetak eta bizipenak

Heriotzaren inguruko gogoetak eta bizipenak konpartitzeko aukera izango da saio honetan.



Mari Carme BOQUÉ

Irakaslea, pedagogoa, bitartekaritzan graduatu-ondokoa eta "Guía de la Mediación Escolar" en egilea

Gatazken tailerra... dagokion irtenbideekin

Gatazka gure bizitzako gauza naturalak direla ulertzeak indarkeria eta elkarriketaren aurreko pasibitatea banatzen dituen bidea egiten laguntzen digu.

Egoera gatazkatsuak aurrez ikusi daitekeen dinamika jarraituz gauzatzen dira. Orduan, bere aldagai nagusienak zein diren jakin dezakegu, eta aurrez landu.

Gatazka konstruktiboki eraldatzeko lan egitea eta beraien alderdi pedagogikoa aprobetxatzea ere bakearen alde lan egitea da.

Helburuak:

- Gatazken potentzial pedagogikoa aztertu jolas proposamenetatik abiatuz.
- Egoera gatazkatsuei modu desberdinetaz erantzuteko aukerak aurkitu.
- Gatazken eraldaketa konstruktiborako perspektibak eman.
- Bitartekotza kultura zabaldu.

Metodologia

Saio interaktiboa izango da; gatazka ardatz bezala hartuz eta hortik abiatuz, gure ikasleekin batera elkarriketaren eta bakearen kultura nola sor eta landu dezakegun hausnartuko dugu.



Luis LARRAÑAGA "PIZTI"

Tuterako Argia ikastolan Heziketa Fisikoko espezialista

Mendi orientazioa

Mendi orientazioaren inguruko saio praktikoa burutzeko aukera izango duzue. Saio honetan, maila eta etapa desberdinetako adibideak lantzen saiatuko gara.



Felix BASURKO

EHUko Pedagogia Fakultateko irakaslea

Euskal Curriculuma

Mendi orientazioaren inguruko saio praktikoa burutzeko aukera izango duzue. Saio honetan, maila eta etapa desberdinetako adibideak lantzen saiatuko gara.

Argitaletxeen materialen aurkezpenak

Ibaizabal eta Elkarlanean argitaletxeek beren materialen aurkezpena egingo dute.



*Pedagogiaren bide berrietan lankide,
gure herriaren geroa lantzen.*

Euskara zure unibertsoan



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua